

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
**ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN
JARDUERA MEMORIA**

2019



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

SARRERA

Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Al-
dundiko eta haren Sektore Publikoko Erakundearen
Zuzentasun Sistema onartu zuen. Jarraian, Era-
kundearen Etika Batzordea (EEB) sortu zen 3/2016
Foru Dekretuaren bidez, eta Diputatuen Kontseiluak
2016ko maiatzaren 3an hartutako erabakiaren bi-
dez, bertako kideak izendatu ziren, hain zuzen ere
Erakundearen zuzentasun Sistema hori betetzeko
berme organo gisa.

Memoria honen xedea da 2019an zehar Erakundea-
ren Etika Batzordean izandako jarduera jasotzea,
hain zuzen ere Erakundearen Zuzentasun Sistema
Bermatzeko Organoaren funtzionamenduari buruz-
ko d) eta e) ataletan xedatutakoaren arabera. Horrez
gain, memoria honek, aztertutako kasuak zehazteaz
gain, hainbat gomendio ere jasotzen ditu Erakundea-
ren Zuzentasun Sistemaren barne dauden Jokabide
Kode ezberdinen edukia interpretatzeko, hain zuzen
ere edukia argitu eta egungo egoerara egokitzeke.

1- Testuingurua	7
2- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistema	9
a) Erakundearen Etika Batzordearen osaera aldaketa	10
b) Erakundearen Zuzentasun Sistemaren Auditoretza	10
c) Sentsibilizazioa	12
a. Jardunaldiak	12
i. Erakundearen Zuzentasun Sistemak sektore publikoan. Otsailaren 14a	12
ii. Etorkizuna Eraikiz. Open Minded governance for your future. Otsailaren 18-19a	13
iii. Nola ulertu gobernu ekintza gaur egungo munduan. Abenduaren 19a	17
b. Sentsibilizazio materiala: Garapen Jasangarriko Helburuak eta Erakundearen Zuzentasun Sistema	18
d) 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan	19
3- Kanpoko hedapena	21
a) Kongresuetako parte hartzea	22
a. <i>Compliance</i> Sektore Publikoan ezartzeari buruzko II. Kongresua Madril, martxoaren 27a.	22
b. <i>Compliance</i> Sektore Publikoan. Donostia, maiatzaren 17a	23
c. Erakundearen Zuzentasun Sistemak Administrazio Publikoetan. Santiago de Compostela, abenduaren 2-3a	23
d. Zuzendaritza publiko profesionalaren 1. online kongresu globala. <i>Online</i> , abenduaren 3a	23
e. Gardentasuna, etika eta zuzentasuna administrazio publikoetan. Murtzia, abenduaren 9a	24
b) Albisteak eta argitalpenak	24
a. FEMP tokiko gobernu onerako gida.	24
b. Zuzentasuna eta Etika Funtzio Publikoan	25
c) Webgunea	26
d) Online prestakuntza “Gobernantza ireki eta kolaboratiboa”ri buruz	26

4- Jasotako gaiak27
a) Laburpena	28
b) Ebatzitako gaiak	35
• 01/2019, oparia jaso izanaren inguruko kontsulta (KP)	35
• 02/2019, fundazio bateko patronatuko kidea izateko gonbiteari buruzko kontsulta (EP)	38
• 03/2019, betetzen dituen funtzioen inguruan azaldutako kexari buruzko ebazpena (KP).	41
• 04/2019, interesdunak adierazitako jarduerekin bere lanpostua bateragarri izateari buruzko kontsulta (EP).	43
• 05/2019, langile publiko bati atzerrira bidaiaria egitera gonbidatzeari buruzko kontsulta (KK)	46
• 06/2019, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren aplikazio esparruaren irismenari buruzko kontsulta (EzS)	51
• 07/2019, familia-enpresako lehendakariorde izateko aukeraz egindako kontsultari ebazpena (EP)	56
• 08/2019, ordutegia eta lan egutegia aldatzearen arrazoiak erakundearen zuzentasun sistemari egokitzeari buruzko kontsulta (EP)	59
• 09/2019, zuzendari nagusi batek udal bateko zinegotzi izateagatik dietak kobratzeari buruzko kontsulta (KP).	62
• 10/2019, zuzendari nagusi batek fundazio batean patronatuko kide gisa parte hartzeari buruzko kontsulta (KP).	65
• 11/2019, goi eta erdi mailako teknikari batzuek Diputatuen Kontseiluaren erabaki baten onarpenari buruzko egindako salaketari buruzko ebazpena (KP).	69
• 12/2019, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide baten jabetzako enpresa baten balizko kontratazioari buruzko kontsulta (KK)	71
• 13/2019, foru Aldundiko teknikari batek dirulaguntza baten izapidetze prozeduran parte hartzeari buruzko kontsulta (DL)	75
5- Aplikazio gida79

1. Testuingurua

2019a Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentzen Sistema (EZS) indartzeko urtea izan da. Ordura arte, 2016an sortu zenetik, EZS osatu duten Portaera Kodeak txertatu dira pixkanaka, harik eta sistema oso bat eratu arte. Sistema hori hainbat erakundek onartu eta goratu dute, orain arteko osoenetako bat baita. EZSren helburu nagusia Gipuzkoako gizarteak zuzentasunaren kultura berri bat barnertzea denez, Portaera Kodeen bidez gizarte horren zati handi bat barnean hartzeko ahalegin txalogarria egin da; izan ere, kontratuak egiten dituzten eta foru sektoreko goi karguei, enplegatu publikoei eta sektore publikoarekin kontratuak egin eta haietatik laguntzak jasotzen dituzten enpresei eta erakundeei aplikatu beharreko portaera eta jarduketaren balio, printzipio eta arauak ezarri dira. Zuzentasunaren kultura hori indartzeko oinarriak ezarrita, 2019. urtearen ezaugarria izan da ekintzak egin direla EZSn ezarritakoa ezagutzera emateko, hedatzeko, horri buruz sentsibilizatzeko eta horren inguruan prestatzeko.

Bestalde, Foru Aldundiak azpiegitura etiko sendo bat finkatzen aurrera egiteko hartu duen konpromisoa argi eta garbi islatu da bi tresnatan. Batetik, lurraldeko Gobernantza Onaren ardatz nagusia dugu: EZS, 4/2019 Foru Arauaren, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoan¹ ezarritakoaren arabera; bestetik, 2019-2023 Plan Estrategikoaren² helburu estrategikoetako bat dugu: EZS sakontzea, zuzentasunaren arloko arriskuak identifikatzeko eta prebenitzeko hobekuntzak eta aurrerapenak txertatuz.

1 Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 53. zk., 2019ko martxoaren 18a.

2 <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia>

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistema

a) Erakundearen Etika Batzordearen osaera aldaketa

2019ko maiatzean izan ziren foru hauteskundeen ondorioz, Gobernu talde berria dago eta, horregatik, Erakundearen Etika Batzordearen osaera aldatu da. 3/2016 Foru Dekretua,³ Erakundearen Etika Batzordea eratzekoaren 4.1.a) artikulua adierazten du Batzordearen lehendakaria izango dela gobernantza funtzioak dituen eta Batzorde hau dagokion Departamenduko foru diputatua. Horregatik, Batzordearen lehendakari berria Eider Mendoza Larrañaga da, Gobernantzako Departamenduko foru diputatua baita.

Aukera hau baliatzen dugu aurreko lehendakariari, Imanol Lasa Zeberio jaunari, Batzordean egin duen lana eskertzeko.



Erakundearen Etika Batzordearen gaur egungo kideak

b) Erakundearen Zuzentasun Sistemaren Auditoretza

Jakina den bezala, edozein politika publikoren helburua da etengabe hobetzea. Are gehiago Erakundearen Zuzentasun Sistemaren kasuan, zeren, beste batzuetan adierazi dugun bezala, une bakoitzeko errealitatearen arabera aldatu eta egokitu behar den tresna bizi bat da. Horretarako, tresna horren segimendua eta ebaluazioa egin behar da, batetik, erakundearen zenbateraino ezarri den ebaluatzeko eta, bestetik, prozesuak edo arloak hobetzeko aukerak identifikatzeko, tresna honen garapenean eta ezarpenean aurreratu ahal izateko.

³ Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 47. zk., 2016ko martxoaren 10a.

Erakundearen Etika Batzordeak barne segimendu eta ebaluazio hori egiten du bere eguneroko jardunean eta horren erakusle dira, baita erkatutako kasuei buruzko hausnarketaren eta azterketaren erakusle ere, Jardueraren Memorietan urtero egiten dituen gomendioak. Horien helburua baita EZSn ezarritakoa pixkanaka argitzea eta hobetzea.

Halere, EZSk adierazten du kanpoko ebaluazioak ere egin behar direla, horrelako ebaluazio prozesuen sinesgarritasun profesionala, inpartzialtasuna eta esperientzia egiaztatzeko (EZSren 7.2. artikulua). Horregatik, 2019ko urrian *World Compliance Association*⁴ enpresak kanpoko ebaluazio bat egin zuen. Enpresa hori irabazi asmorik gabeko nazioarteko elkarre bat da, *compliance* munduarekiko interesa duten profesionalak eta erakundeek osatua (kultura hau erakunde guztiek hartu behar dute kontuan konpromiso etikoaren eta erantzulearen parte gisa eta beren interes taldeentzat balio seguru bat sortzeko modu gisa), eta bere helburuak hauek dira: erakundeek beren gain hartutako prozedurak eta jarraibide egokiak sustatzea, aztertzea eta ebaluatzea arrisku operatiboak eta legalak identifikatzeko eta sailkatzeko, baita tresnak eta prozesuak garatzea ere behar bezala babesteko beren langileek, laguntzaileek edo haiekin erlazioa duen beste edozein pertsonak egindako delitu/arau hauste zehatz batzuetatik.

Auditoretza 2 fasetan egin zen:

1. Lehenik, dokumentuak berrikusi ziren. Horretarako, foru Aldundiak ebaluazioa eta azterketa egiteko behar diren dokumentu guztiak eman zizkion auditoretza taldeari (EZS eta hori osatzen duten 4 Portaera Kodeak).
2. Bisita *in situ*. 2019ko urriaren 10ean eta 11n egin zen *in situ* bisita, foru Aldundiaren Jauregian. Bisita horretan, talde auditoreak behar diren ebidentzia guztiak jaso ahal izan zituen auditoretzaren helburuak betetzeko. Auditoretza planaren arabera, bisita 10ean hasi zen talde auditorea eta auditoretzaren metodologia aurkeztu ziren bilera batekin.

In situ bisitan zehar, EZSk zenbateko ezarpen maila duen jakiteko, erakundeko hainbat arlotako pertsona elkarrizketatu ziren (Gobernantza Departamentuaren Idazkaritza Teknikoa, Eraldaketako Zuzendaritza Nagusia eta Araubide Juridikoko eta Langileen Kudeaketako Zuzendaritza), baita Erakundearen Etika Batzordearen kideetako bat ere. Era berean, EZS ezartzeko esparruan egindako jardueren ebidentziak eskaini zituzten dokumentuak, erregistroak eta bestelako informazioa eskuratu zituen taldeak. Bisitari amaiera emateko, urriaren 11n beste bilera bat egin zen eta bertan deskribatu ziren auditoretzaren emaitzak, indarguneak eta erakundeak hobetu beharreko arloak zein diren.

Memoria honen amaiera aldera bildu dira, ohikoan den bezala, Erakundearen Etika Batzordeak urte honetarako proposatzen dituen aldaketak eta hobekuntzak. Horietako batzuk talde auditoreak egindako gomendioen ondorioz proposatu ditu. Baina auditoretzaren ondorio orokor gisa, hauek adieraz daitezke:

- Informazioa eta identifikatutako aurkikuntzak berrikusi ondoren, talde auditoreak nabarmendu zuen, indargune gisa, foru Aldundiak erakutsitako lidergoa, Zuzentasunaren Sistema bat ezartzen aitzindaria baita.

4 //worldcomplianceassociation.com/

- Ondorioztatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundian Zuzentasunaren Sistema ezartzen ari dela, ezartzen hasiberria den arren, eta erakundeak ahalegin etengabea egin behar duela sistemak barnean hartzen dituen langileen prestakuntzaren eta sentsibilizazioaren arloan. Horrez gain, sistematika bat ezarri behar du alderdi interesdunek EZSri buruz duten iritzia jasotzeko.
- Portaera Kodeei dagokienez, gomendatzen da portaera arauen deskribapenean gehiago sakontzea.
- Erakundearen Etika Batzordeari dagokionez, gomendatzen dute Zuzentasunaren Sistemak ematen dizkion eginkizunak eta ardurak berrikustea, baita Batzordearen jarduerak arautzeko Araudi bat ezartzea ere.
- Horrez gain, gomendatzen dute kontrol mekanismoak ezartzea sistemaren ezarpenaren inguruko segimendu eraginkorragoa egiteko; horrela, sistematikoki identifikatzeko desbideratzeak eta hobetzeko aukerak.
- Aholkatzen dute, halaber, salaketentzako kanal bat ezartzea, baldin eta salatzailearen babesa eta informazioaren konfidentzialtasuna ziurtatzen badu.

c) Sentsibilizazioa

EZSn ezartzen den bezala, sistema era efektiboan ezartzeko gakoetako bat da, sisteman ezarritako portaeraren eta jarduketaren balioak, printzipioak eta arauak hedatzea. Horretarako, barneko eta kanpoko komunikazio ekintzak eta kanpainak egin behar dira klima etiko bat garatzen laguntzeko eta EZSn ezarritakora egokitzen ez diren portaerak prebenitzen laguntzeko; horrela, azpiegitura etikoa eta kudeaketa publikoaren jarraibide egokiak hobetzen lagunduko da.

Testuinguru honetan, urtero egiten dira foru Aldundiko langileei eta herritarrei zuzendutako jardunaldiak eta topaketak. Horietan guztietan, oro har, era batera edo bestera etikari eta zuzentasunari buruz eztabaidatu nahi da eta, aldi berean, foru erakundeak ildo horretan eman dituen pausoak ezagutzera ematen dira.

a. Jardunaldiak

i. Erakundearen Zuzentasun Sistemak sektore publikoan. Otsailaren 14a

2018an Gipuzkoako Foru Aldundiak eta UNEDek, Gobernantza Demokratikoaren institutuarekin elkarlanean, martxan jarritako *online* “Gobernantza irekia eta kolaboratiboa” prestakuntzaren esparruan, 2019ko otsailaren 14an foru Aldundiaren Jauregian topaketa bat egin zen, zuzentasun sistemari, prebentzio mekanismoari eta gardentasunari buruzko solasaldi bat egiteko helburuarekin. Hauek guztiek parte hartu zuten solasaldian: **Rafael Jiménez Asensio**, unibertsitateko katedradun egiaztatua, erakunde publikoetako Gardentasunean eta Erakunde Zuzentasunean espezializatua; **Cristina de la Cruz**, Filosofia irakasle titularra eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikertzailea; eta **Alfonso Puncel**, une horretan, Valentiako Generalitateko Gardentasunerako Kontseilaritzako idazkariordea.

Topaketako egitura hau izan zen:

GOBERNANTZA IREKIA ETA KOLABORATIBOA

Etorkizuna Eraikiz Gunea

2019ko otsailaren 14an, 18:00 - 20:00

	Gaiak eta hizlariak
18:00-18:10	Irekiera eta esker ematea. Imanol Lasa. Gipuzkoako Foru diputatua. <i>Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa.</i>
18:10-18:25	Erakundearen Zuzentasun Sistema sektore publikoan Rafael Jiménez Asensio. <i>Administrazio Publikoen kontsultorea.</i>
18:25-18:40	Arlo publikoko gardentasuna: bitartekoa edo helburua? Cristina de la Cruz, <i>Filosofia irakasle titularra eta Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko ikerlaria</i>
18:40-18:55	Ustelkeria prebenitzea arlo publikoan alerta goiztiarren bidez. Alfonso Puncell. <i>Valentziako Generalitateko Gardentasunerako Kontseilaritzako idazkariordea</i>
18:55-20:00	Solasaldia eta galde-erantzunen tarte.

ii. Etorkizuna Eraikiz. *Open Minded governance for your future.* Otsailaren 18-19a

2019ko otsailaren 18an eta 19an Tabakaleran egin zen “Etorkizuna Eraikiz. *Open Minded governance for your future*” kongresua. Ardatzak izan ziren Gobernu Irekia eta Garapen Jasangarriaren Helburuak, binomio horretan bilduta baitaude administrazioek eta gizarteak etorkizunean izango dituzten kontzeptuak eta erronkak.

Kongresua formatu berritzaileaz baliatu zen. 6 blokek edo panelek osatu zuten formatu hori (Gobernantza kolaboratiboa, Erakundearen Etika, Plangintza, ebaluazioa eta kontu ematea, Gardentasuna, Partaidetza eta GJHren lokalizazioa). Horietan guztietan, gobernu onaren arlo horietako lehen mailako nazioarteko adituek parte hartu zuten, eta helburua izan zen eztabaidatzea EAeko eta nazioarteko administrazio publikoak sustatzen ari diren Gobernantzako eredu berrien inguruan. Solasaldia aditu batek gidatu zuen eta lurraldeko esperientziak partekatu ziren, baita nazioarteko praktika hobek ere. Horrela, errealitatea 3 mailatan irudikatu zen: tokikoa, foru arlokoa eta nazioartekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Erakundearen Zuzentasunaren arloan duen esperientzia Etika Batzordeko kide Goizeder Manotasek adierazi zuen.

Etorkizuna Eraikiz. open minded governance for your future

18 y 19 de febrero de 2019
 Tabakalera, Donostia - San Sebastián

Otsailak 18, astelehena **Tabakalera (Patio Gela)**

Ordua	Gaia	Parte hartzaileak
8.30-9.00	Akreditazioak	
9.00-9.15	Kongresuaren irekiera	Markel Olano. Diputatu Nagusia
9.15-9.30	Garapen jasangarriko helburuen kokapena Gobernantza kolaboratzailearen esparruan	Carlos Martínez (CGLU)
9.30-9.45	Ponentzia nagusia "Geure burua gobernatzea"	Daniel Innerarity
9.45-10.40	Gobernantza Kolaboratiboko ereduak mahaia	Aditua: Daniel Innerarity
	Nazioarte eremuko, udaleko eta Foru Aldundiko esperimentzen inguruko elkarriketa	X. Barandiaran (GFA) Julen Mendoza (Errenteria) Peter Varga (OGP)
	Ondorioak/galderak	
10.40-11.10	Kafea	



Orduko Erakunde Etika Batzordearen lehendakari Imanol Lasa Kongresuan

11.10-12.05	Erakundearen Etika mahaia	Aditua: Manuel Villoria
	Nazioarte eremuko, udaleko eta Foru Aldundiko esperimentzien inguruko elkarrizketa	Goizeder Manotas (GFA) Koldobike Olabide (Legazpi) Carles Agustí (Bartzelonako Dip.)
	Ondorioak/galderak	
12.05-13.00	Planifikazioa, Ebaluaketa eta Kontu ematea mahaia	Aditua: Cristina Monge
	Nazioarte eremuko, udaleko eta Foru Aldundiko esperimentzien inguruko elkarrizketa	Sebas Zurutuza (GFA) Ibon Ramos (Donostia) Doreen Grove (Escocia)
	Ondorioak/galderak	
13.00-13.10	GFAko Gobernu Irekiko ekimenak	Imanol Lasa. Foru Diputatua

13.10-14.05	Gobernu Irekiko politikak: Gardentasun mahaia	Aditua: Juana López (CGLU)
	Nazioarte eremuko, udaleko eta Foru Aldundiko espe- rientzien inguruko elkarrizketa	Haritz Ugarte (GFA) Ana Tellería (Eibar) Diego Gismondi (Santa Fe)
	Ondorioak/galderak	
14.05-15.00	Gobernu Irekiko politikak: Partaidetza mahaia	Aditua: Arantxa Mendiharat
	Nazioarte eremuko, udaleko eta Foru Aldundiko espe- rientzien inguruko elkarrizketa	Joseba Muxika (GFA) María Ubarretxena (Arrasate) Bruno Kaufmann (Suiza)
	Ondorioak/galderak	
15.00-16.15	Bazkaria	
16.15-16.30	ODS16 lokalizazioa: bakea, justizia eta erakunde sen- doak	Aditua: Carlos Martínez (CGLU)
16.30-18.00	CGLU, OGP, EJ, GFA, probintzia eta nazioarteko espe- rientzien inguruko elkarrizketa	Luis Petrikorena (EJ)
		Iker Goiria (GFA)
		Kontxi Odriozola (Bartzelonako Dip.)
Patrick M. Kazyak (OGP)		
María Julia Reyna (Santa Fe)		
Edwin Miño (CONGOPE)		
Ondorioak/galderak		
18.00-18.15	Kongresuko ondorioak eta itxiera	Imanol Lasa. Foru Diputatua

Otsailak 19, asteartea, **Etorkizuna Eraikiz Gunea (GFako Jauregia)**

Ordua	Gaia	Parte hartzaileak
9.30-12.00	CGLUko Gardentasun eta Gobernu Irekiko praktika-komunitataren eta Eskualde Foroaren arteko bilera irekia	Ireakia

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia/Diputación Foral de Gipuzkoa * **EJ:** Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco * **CGLU:** Ciudades y Gobierno Locales Unidos * **OGP:** Open Government Partnership * **CONGOPE:** Consorcio de Gobiernos autónomos provinciales del Ecuador

iii. Nola ulertu gobernu ekintza gaur egungo munduan. Abenduaren 19a

Kasu honetan Euskadiko GJHren⁵ eta, zehazki, Ekintza Planeko 5. konpromisoaren, hau da, Zuzentasunaren eta Gobernu Onaren Euskal Sistema bat onesten duenaren garapenaren esparruan, foru Aldundiaren Jauregian gogoeta egiteko topaketa bat antolatu zen. Topaketa horretan, gobernu irekiaren politiken erronkak testuinguruan jarri ziren eta horretan guztian etika publikoak duen garrantzian eta paperean sakondu zen. Gai hauetan sona handia duten eta problematika hobeto ulertzen lagundu zuten aditu hauek parte hartu zuten: Daniel Innerarity, Filosofia Politikoko katedraduna; Juanjo Álvarez, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko katedraduna; eta Txetxu Ausín, CSICEko (Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorena) Etika Aplikatu Unitateko zuzendaria.

NOLA ULERTU GOBERNU EKINTZA GAUR EGUNGO MUNDUAN

Etorkizuna Eraikiz Gunea

2019ko abenduaren 18a, 10:00 - 12:00

Nola ulertu gobernu ekintza gaur egungo munduan		
Eider Mendoza	Sarrera eta esker ematea	10.00
Daniel Innerarity	Modu ezberdinean gobernatzeko erronkari heltzeko arrazoiak	10.10
Juanjo Álvarez	Gobernu irekiko politiken <i>soft law</i>	10.40
Txetxu Ausín	Gobernantza etikoaren erronka	11.10
Goizeder Manotas	Open Government Partnership Euskadi eta Zuzentasunaren eta Gobernu onaren Euskal Sistema	11.40
Eztabaida		

⁵ <http://www.ogp.euskadi.eus>



Juanjo Álvarez, Daniel Innerarity, Txetxu Ausín eta ekitaldira bertaratutakoak

b. Sentsibilizazio materiala: Garapen Jasangarriko Helburuak eta Erakundearen Zuzentasun Sistema

EZS hedatzeko jardueraren parte gisa eta NBERen Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) foru Aldundiak ezartzeko konpromisoa hartu duela eta bere egin dituela ikusarazteko, 17

GJHei buruzko panel handi batzuk egin ziren. Horien artean, 16. GJH nabarmendu zen: Justizia, Bakea eta Erakunde Irmoak. GJH horren helburu nagusia da gizarte bakezaleak eta inklusiboak sustatzea garapen jasangarrirako, justizia guztion eskura izatea errazteko eta erakunde eraginkorrak, erantzuleak eta inklusiboak sortzeko maila guztietan. Helburu hau lortzeko, garrantzitsutzat jotzen da gobernu guztiek, gizarte zibilak eta komunitateek batera lan egitea konponbide iraunkorrak praktikan jartzeko, zehazki, indarkeria murrizten dutenak, justizia egiten dutenak, ustelkeriari era efikazean aurre egiten diotenak eta une oro partaidetza inklusiboa bermatzen dutenak. Eta, argi eta garbi, premisa horiek guztiak estuki



Foru Aldundiaren Jauregiaren sarreran dagoen panela

lotuta daude foru arloko sektore publikoaren EZSren oinarri diren portaeraren eta jarduketaren balioekin, printzipioekin eta arauekin.

GJHak eta EZSak zerrendatzen diren panelak foru Jauregiaren sarreran daude.

d) 4/2019 Foru Araua, martxoaren 11koa, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan

Aurrez esan dugun bezala, foru Aldundiaren Zuzentasun Sistema garatzeko mugarri garrantzitsua izan da 4/2019 Foru Araua, Gobernu Onari buruzkoa⁶ onestea.

Legeek *per se* ez dute bermatzen legea beteko denik. Izan ere, kontaezina da eroskeria indizerik handiena izateaz gain ustelkeriaren aurkako lege andana dituzten herrialdeen kopurua; beste batzuek, ordea, beren zigor kodean arlo honetan jasotako delituen zigorrak gogortu dituzte eta, halere, ez dute lortu ustelkeria desagertzea. Horregatik, beste batzuetan esan dugun bezala, autoerregulazio kodeek, zuzentasun sistemen parte gisa, abantailak dituzte legeekin alderatuta, zeren tresna eraginkorragoak dira portaeraren eta jarduketaren balioak, printzipioak eta arauak barneratzeko; izan ere, haiekin batera izaten diren tresnek, esaterako sentsibilizazioak eta prestakuntzak, txertatzen dituzte egiazki bali horiek gai publikoak kudeatzeko kultura berri batean. Gainera, kontuan izaten badugu zuzentasun sistemak etengabe aldatzen ari diren tresnak direla, autoerregulazio kodeek, arauak ez bezala, une bakoitzeko errealitate sozialera etengabe egokitzeko malgutasuna dute. Horrela, gero eta zorrotzagoa den, hobeto prestatuagoa dagoen eta informazio baliabide gehiago dituen gizarteari erantzuten diote; izan ere, gizarte horrek gobernatzen duten ordezkari politikoei eskatzen die alda dezatela pentsatzeko, jarduteko, herritarrekin erlazionatzeko eta ondasun publikoa kudeatzeko modua.

Halere, foru arau batean onartzea erakundearen zuzentasuna dela foru erakundeak duen gobernuaren oinarria, erakundeak ematen dion garrantziaren erakusle oso adierazgarria da. Hau adierazten da hitzaurrean:

“(...) Erakundearen zuzentasuna gobernu onaren funtsezko alderdi eta oinarrizko balioa da, eta hori bermatzeko nahitaezkoa da erantzukizun politikoa duten pertsonen nahiz langile publikoen, eta foru zerbitzuak ematen dituzten entitateek edo pertsonen jarduera eredugarria izatea eginkizun publikoak betetzerakoan. Zuzentasunak Gipuzkoako erakunde egituraren izaeraren, seriotasunaren, lan egiteko moduaren eta sareko lanaren ezaugarri izan behar du, globalizazioko eta lehiakortasuneko ingurune batean. Beraz, garrantzitsua da foru administrazioaren azpiegitura etiko bat sortzea, legeak betetzera mugatuko ez den eta erakunde zuzentasuneko esparru bat eraikitzeke pauso irmoak emango dituen politika bat bultzatuz, herritarrek beren erakundeekiko konfiantza berreskura dezaten. Horrez gain, kudeaketa publikoan jardunbide egokiak ezartzen eta garatzen badira, hobetu egingo da administrazioaren errendimendua, herritarrek behar dituzten zerbitzuen onerako (...).”

Foru arauaren II. Titulua Erakundearen Zuzentasunari buruzkoa da eta, besteak beste, helburuak zein diren, sistema inspiratzen duten balioak edo portaera kodeen helburua adierazten dira. Bestelako alderdi garrantzitsu batzuk ere aurreratzen ditu, esaterako, tokiko erakundeekiko elkarlana zuzentasunaren sistemak eratzeko edo Intereseko Taldeen

⁶ Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 53. zk., 2019ko martxoaren 18a.

Erregistroa sortzeko. Alderdi horiek guztiek, ezbairik gabe, lurraldean azpiegitura etikoa finkatzeko lanean aurrera egiten laguntzen dute.

3. Kanpoko hedapena

a) Kongresuetako parte hartzea

Aurrez esan bezala, ahalegin handia egin da aplika dakiekeen pertsonen artean foru arloko Zuzentasun Sistema zabaltzen, baina, horrez gain, lan egiteko moduaren eredia izan da foru Aldundia parte hartzera gonbidatu duten ekitaldi eta argitalpen askotan. Horrela, egindako lana aitortu da.

a. **Compliance** Sektore Publikoan ezartzeari buruzko II. Kongresua Madril, martxoaren 27a

Martxoan 27an, Madril en egin zen *Compliance* II. Kongresua, *World Compliance Association* nazioarteko elkarteak antolatuta. Kongresu honen helburua izan zen aztertzea arauak betetzeko programen hainbat alderdi, baita sektore publikoak gardentasun eta zuzentasun handiagoa izateko hartu beharreko funtsezko neurriak ere, herrialdearen garapen ekonomiko eta sozialerako funtsezko premia gisa. Hori dela eta, *compliance* espezialitatutako kongresu bat egitea beharrezkotzat eta garrantzitsutzat jo zen, baldin eta kongresu horretan parte hartzen bazuten arlo honetan nazioan eta nazioartean garrantzitsuenak diren aktoreek.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia gonbidatu zuten joan zedin eta azal zezan etikaren arloan duen ikuspegia eta, bereziki, kontratazio publikoaren arloan hartutako neurriak azal zitzaen. Kasu horretan, Erakundearen Etika Batzordeko kide Goizeder Manotas mahai inguruan izan zen hauekin guztiekin batera: Audientzia Nazionaleko Apelazio Salako magistratu Eloy Velasco Núñez; Andaluziako Kontuen Ganberako kontseilari Enrique Benítez Palma eta kontratazio publikoan aditu Concepción Campos, mahai inguruaren moderatzailea izan zena.



Compliance Sektore Publikoan ezartzeari buruzko II. Kongresua Madril, martxoaren 27a

b. Compliance Sektore Publikoan. Donostia, maiatzaren 17a

Compliance gaiari buruz eztabaidatu zen ere BSK abokatuen langelak antolatu zuen ikastaro batean, Donostiako Kursaal Jauregian, 2019ko maiatzaren 17an. Kasu horretan foru Aldundiak emandako azalpena 4 alderditan oinarritu zen: Gipuzkoako Foru Aldundiko esperientzia praktikoa eta Erakundearen Zuzentasun Sistemak, gaur egun indarrean dauden Portaeraren eta Jarraibide Egokien Kodeak, Erakundearen Etika Batzordearen funtzionamendua eta 4/2019 Foru Araua, Gobernu Onari buruzkoa, foru gobernantza publikoaren esparruan.

c. Erakundearen Zuzentasun Sistemak Administrazio Publikoetan. Santiago de Compostela, abenduaren 2-3a

Administrazio Publikoaren Eskola Galegak abenduaren 2an langile publikoei zuzendutako ikastaro monografiko bat antolatu zuen. Ikastaro horren helburu nagusia izan zen sektore publikoko zuzentasun sistemen alderdi orokorrak ezagutaraztea (zuzentasunaren eta ustelkeriaren kontzeptuak, zuzentasunaren politikak, ustelkeria prebenitzeko ereduak eta betearazpena kudeatzeko sistemak), baita administrazio publikoetan arriskuak kudeatzeari lotutako alderdi teknikoagoak ere.

Kasu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia gonbidatu zen, dituen Zuzentasun Sistemen baitan onetsitako kode etikoetako edukiak azaltzeko eta, bereziki, Erakundearen Etika Batzordeak egindako lana azaltzeko.

ASTELEHENA, 2019KO ABENDUAK 2

GOIZA

11:00 h. INAUGURAZIOA

11:15 h. Integritate instituzionaleko sistemak administrazio publikoetan. Azplegitura etikoko elementuak
Silvia Bacigalupo Saggese. Transparency International Espainiako lehendakaria. Zigor Zuzenbideko katedraduna. UAM

12:00 h. Administrazio publikoetako ustelkeriaren prebentzioa.
Maria Belén López Donaire. Gaztela-Mantxako komunitateen batzarreko zerbitzu juridikoetako zuzendari nagusia.

13:00 h. Kode etikoak eta Jokabide - kodeak
Goizeder Manotas Rueda. Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako Zuzendari nagusia. Erakundearen Etika Batzordeko kide.

d. Zuzendaritza publiko profesionalaren 1. online kongresu globala. Online, abenduaren 3a

Zuzendaritza Publiko Profesionalaren Elkartek⁷ 2019. urtearen amaiera aldera, zuzendaritza publikoaren 1. online Kongresu globala antolatu zuen eta foru Aldundia gonbidatu zuen bertan parte hartzera, kongresu horretan bereziki gara zezan foru sektorearen Zuzentasun Sisteman jasotako profesionaltasunaren balioa, kontzeptuaren ikuspegia eta nola kokatzen duen gaia Sistemaren barnean.

Online partaidetza bideo batean bildu zen, abenduaren 3an erakutsi zena. Bertan parte hartu zuten Goizeder Manotasek, Erakundearen zuzentasun politika garatzeko arduradunak, eta Maite Barruetañak, Langileen Kudeaketako Zerbitzuaren arduradunak.

⁷ <https://asociaciondireccionpublicaprofesional.blogspot.com/>

2020an zehar argitaratuko da, *Wolter Kluwers* enpresari esker, kongresuan emandako hitzaldiei buruzko aldizkari berezi bat.

e. Gardentasuna, etika eta zuzentasuna administrazio publikoetan. Murtzia, abenduaren 9a

Kasu horretan, foru Aldundia gonbidatu zuten parte har zezan “Administrazio publikoetako gardentasuna, etika eta zuzentasuna” izeneko gogoeta jardunaldi batean. Jardunaldi



horren (Nazio Batuen Erakundeak Ustelkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzeko abenduaren 9a ezarri zuen eta hori dela eta antolatu zen) helburua zen, batetik, kontratazio publikoko gardentasunaren eta zuzentasunaren arloko ondorio legal berriei buruz jardutea eta, bestetik, ezagutzea Administrazio Publiko batean Erakundearen Zuzentasunaren Esparru bat martxan jartzeko behar diren elementuak, eredutzat hartuta Gipuzkoako Foru Aldundia.

Kasu honetan, foru Aldundiak estatuan gai honi buruz 2 aditu nagusirekin partekatu zuen mahaia: Manuel Villoria eta Concepción Campos.

Goizeder Manotas, Concepción Campos eta Manuel Villoria, jardunaldiko hizlariak

b) Albisteak eta argitalpenak

EZS aurkeztu den jardunaldiez eta kongresuez gain, EZS zabaltzen lagundu dute hainbat aldizkari eta komunikabidetan EZSri buruz aritu diren aipamenei eta artikuluak.

a. Guía para el buen gobierno local

Argitalpen hau⁸, Udalerrien eta Probintzien Federazio Espainiarrak editatua, 2019ko maiatzeko udal hauteskundeen ondoren sortutako gobernuen talde berrientzat baliagarri izan zen erreferentzia gisa; izan ere, ezagutu behar zuten, kudeaketa publikoaren arloko interes bereziko gaien egoera eta entitate hauei beren erakundeetako gobernu onerako aukerak erraztera bideratutako proposamen batzuk egin behar zizkieten.

Argitalpenean, hurrengo urteetan landu beharreko irtenbideetan, etorkizuneko proposamenetan eta estrategia zehatzetan ere sakontzen da. Kudeaketa publikorako ideiak ikuspegi berritzaile batetik lantzen dira, eta gai garrantzitsuak era labur eta sinplean,

⁸ <http://femp.femp.es/files/3580-2196-fichero/Guia para el buen gobierno local.pdf>

esaterako, tokiko erakundeen antolamendu egitura, berrikuntza antolamendu kultura gisa, erakundearen digitalizazioa gobernu irekiaren palanka gisa, giza baliabideen politika etorkizunean eta orainean pentsatuz, kontu ematea, herritarra kudeaketa publikoaren erdigunean jartzea, kontratazio publikoa, segurtasuna informazioan, datu irekiak, zuzentasun publikoa edo komunikazioa tokiko erakundeetan.

Kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ekarpena eskatu zen Erakundearen Zuzentasun Esparruen atala garatzeko, bereziki aipatuz berme tresnak, eta foru Aldundiak bere Erakundearen Zuzentasun Sistemarekin, jarraibide egokien adibide gisa, duen esperientzia garatzeko.

b. Integridad y Ética en la Función Pública

Argitalpen hau “Integridad y Ética en la Función Pública” lehiaketaren emaitza da. Garapenerako Administrazioaren Zentro Latinoamerikarrak antolatutako Nazioarteko XXII. Kongresuan egin zen lehiaketa hori. Aipatutako nazioarteko erakunde publikoa gobernartekoa da eta Nazio Batuen Asanbleak babesten du; hain zuzen, 2017ko Memorian aipatu genuen bezala, bertan saritu zen Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea, Gobernuen erreformarako eta gobernantza onaren esparruan administrazioen modernizazio prozesuaren jardunbide aurreratu gisa, kontuan hartuta etikaren eta zuzentasunaren alderdietan sakondu behar dela, edozein Gobernuen funtsezko elementuak baitira.

Lehiaketan saritutako jardunbideak, metodologia eta proiektuak monografiko honetan bildu dira, are gehiago sustatzeko zerbitzu publikoaren misioa zaintzen duten erakundeei buruzko gogoetak, oso garrantzitsuak baitira gizarteak garatzeko eta aurrerapen ekonomiko eta sozialak bermatzeko.



INDICE	
Prólogo	7
Francisco Javier Velázquez López	
Gestión ética en la administración pública	11
Aparicio Sánchez	
Paradigmas éticos: los compromisos de que Chile es un país abierto: tentativas para promover la integridad y la ética pública en Latinoamérica	41
Walter Lugin Merino	
Código Ético y de Buena Gestión del Empleo Público	101
Eduard Sánchez Aznar	
Justicia, democracia y transparencia: reflexiones éticas sobre el buen gobierno desde el enfoque del desarrollo humano	123
Francisco Domínguez	
Ética de alta en los servidores públicos: transformación del paradigma de desarrollo en el caso de desarrollo sostenible	179
Marcelo Gómez Pizar	
Ética en la gestión pública de las direcciones regionales: el caso de Colombia	219
Mario Angulo Cruz Herrera, José Miguel Acosta Siquiera, Karen Daniela Rivera Acosta y Jairo Andrés González	

Argitalpenaren azala eta aurkibidea

c) Webgunea

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren webgunea⁹, zalantzarik gabe, leiho garrantzitsua da sistemaren dokumentuak eskuratzeko eta Etika Batzordearen jardura ezagutzeko, baita EZSn egiten diren aldaketak eta hobekuntzak ezagutzeko ere.

Iaz interesgarritzat jo zen hainbat kode siglen bidez identifikatzea, horrela errazago identifikatzeko landutako gaiak eta nahi den informazioa iragazi ahal izateko; 2019an, ordea, beste atal bat txertatu da EZSren eta erakundearen etika zein zuzentasunaren arloko sensibilizazioaren inguruan antolatutako ekitaldiei buruz informatzeko.



<https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea>

d) Online prestakuntza “Gobernantza ireki eta kolaboratiboari” buruz

2019an jarraitu egin da online “Gobernantza Irekia eta Kolaboratiboa”¹⁰ prestakuntzarekin; izan ere, 2018an jarri zen martxan UNED-Bergararekin eta Globernance-Gobernantza Demokratikoaren Institutuarekin elkarlanean. Gogoratu behar dugu, prestakuntza honen helburua dela administrazio publikoak eta lankidetzak publiko-pribatuak garatzeko funtsezko arloak garatzea. Kasu horretan, Erakundearen Zuzentasuna da oraindik ere moduluen ardatzetako bat eta moduluan zehar foru Aldundiak ildo honetan duen esperientzia erakusten da, kodeen berri emanez, baita Erakundearen Etika Batzordearen antolamenduaren, funtzionamenduaren eta jardueraren berri emanez ere.


Bigarren edizio hau 2019ko azaroaren 25ean hasi zen eta 2020ko martxoaren 27an amaitu zen. 37 ikasle zeuden izena emanda, horietatik heren bat EAEko administrazioetako langileak.

⁹ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema>

¹⁰ <https://gobernantza.asmoz.org/>

4. Jasotako gaiak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Etika Batzordeak aktibo jarraitzen du EZS eta orain arte onetsitako 4 kodeak (goi karguei aplikatu beharrekoa, enplegu publikoari aplikatu beharrekoa, kontratazioari aplikatu beharrekoa eta dirulaguntzei eta laguntzei aplikatu beharrekoa) betetzeari buruzko kontsultak eta salaketak ebazteko sortu zenetik. 2016an eta 2017an 6na gai ebatzi ziren, 2018an, ordea, 9 kontsulta eta/edo salaketa jaso ziren, 2017. urtean zehar onetsi ziren bi kode berriengatik (kontratazioari eta enplegu publikoari buruzkoak) eta 2019an 13 gai landu dira. Horrek erakusten du gero eta kontzientziazio handiagoa dagoela EZS betetzeari dagokionez.



KP: Kargu Publikoen portaera kodearekin erlazionatutako ebazpenak

EP: Enplegu Publikoaren portaera kodearekin erlazionatutako ebazpenak

KK: Kontratazioaren portaera kodearekin erlazionatutako ebazpenak


DL: Dirulaguntzen eta Laguntzen portaera kodearekin erlazionatutako ebazpenak

EZS: Erakundearen Zuzentasun Sistemari buruzko kontsulta orokorrei buruzko ebazpenak

Beharbada, EZS ezartzeak ekarri duen lorpenik handiena da jardun baino lehen gauzak berriz pentsaraztea, zalantzan jartzea tradizionalki onartu diren portaerek ea bat egiten duten herritarrek eskatzen dituzten gobernatzeko modu berriekin.

a) Laburpena

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, 2019an izandako kontsulten eta salaketen kopurua aurreko urteetako baino handiagoa izan da. Horrek esan nahi du gaiari buruzko kezka eta kontzientziazio handiagoa dagoela.



EEBren ebazpenak zintzilik dauden webgunearen¹¹ atala

Gogoratu behar dugu, 2019an lehen aldiz izan direla indarrean aldi berean onetsitako 4 kodeak urte osoan zehar; hori dela eta, Batzordeak, agian, jarduera handiagoa izan du. Nabarmendu behar da, halaber, lehen aldiz galdetu dela Erakundearen Zuzentasun Sistemari buruz, zehazki aplikazio eremuaren irismenari eta “foru sektore publikoaren” mugei buruz. EEBk 2019an gai hauek landu ditu: goi karguei aplikatu beharreko kodeari buruzko 3 kontsulta eta 2 salaketa (5); enplegu publikoaren kodeari buruzko kontsultak (4); kontratazio publikoaren kodeari buruzko 2 kontsulta; laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko kodeari buruzko kontsulta bat (1) eta Erakundearen Zuzentasun Sistema aplikatu beharreko eremuaren mugei buruzkoa, lehen aipatu duguna (1).

Gaiak	Kop.	Ebazpena	Kop.
KP kontsultak eta salaketak	5	Ez du urratzen	8
EP kontsultak	4	Gomendioak	2
KK kontsultak	2	Urratzen du	2
DL kontsultak	1	Artxibatu	1
EZS kontsultak	1	2019, guztira	13
2019, guztira	13		

Ohikoa den eran, EZS osatzen duten portaeraren kodeetan ezarritakoa aztertu eta interpretatzeaz gain, beharrezkoa izan da, halaber, hainbat arau eta dokumentu aztertzea, ikuspegi global bat izateko ikusmolde juridikotik eta ebazpenik egokiena emateko:

- 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu eta finantza erregimenari buruzkoa.

¹¹ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea>

- 6/2005 Foru Araua, ekainaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde, Gobernu eta Administrazioaren antolaketari dagokiona.
- 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikoen Portaera Kodea eta Interes Gatazkak arautzekoa.
- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsia urriaren 30ean.
- 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoetako Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzkoa.

Lehen aipatu dugun bezala, 2019an zehar jasotako kontsulten eta salaketen kopurua nabarmen igo da. Azpimarratu behar da, goi karguei aplikatu beharreko Portaera Kodeari buruzko 5 kontsultetatik 4tan (**1/2019, 3/2019, 9/2019, 10/2019**) eta enplegu publikoaren Kodeari buruzko guztietan (**2/2019, 4/2019, 7/2019, 8/2019**) **Zintzotasunaren** eta **Eskuzabaltasunaren** balioak aztertu direla. Gai gehienak jarduera publikoetik bateragarriak diren jarduerak egiteko aukerari buruzkoak izan dira eta/edo hori dela eta ordainsaria jasotzeko aukerari buruzkoak. Kasu bakarrean ebatzi da EZSn ezarritakoa urra daitekeela eta gomendatu da, beraz, uko egitea kasuan ebazpenak hartzean. Halaber, ez da urraketarik hauteman opari bat jasotzeari buruzko gaian.

Kontratazio publikoari aplikatu beharreko kodeari dagokionez, bi kontsulta jaso dira. Lehenengoan (**5/2019**), atzerriko kongresu batean parte hartzeko gonbidapenari buruzkoan, Zintzotasunaren eta Eskuzabaltasunaren balioei buruz ezarritakoa eta **opariak onartze-ko politika** urratzen zirela hauteman zen; bigarrenean (**12/2019**), ordea, ez zen hauteman arazorik zerbitzu bat **kontratatzeko prozeduran**, nahiz eta hainbat gomendio eman ziren, ahalik eta prozedurarik gardenena bermatzeko.

Dirulaguntzei eta Laguntzei aplikatu beharreko Kodearekin erlazionatutako lehenengo galdera ere jaso zen (nahiz eta berdin-berdin aztertu zen enplegu publikoari aplikatu beharreko kodea). Bertan hauteman zen interes gatazka egon zitekeela eta, beraz, uko egitea gomendatu zen (**13/2019**).

Halaber, EZSren aplikazio eremuaren irismenari eta Sistemaren Portaera Kodeei buruzko galdera orokor bat jaso zen (**6/2019**). Gaia aztertu ondoren, EEBk ebatzi zuen, planteatutako gaian EZS ez bazen zuzenean aplikatu behar ere, kasu honetako erakundeak zuzenean parte hartzen duenez zerbitzu publikoen kudeaketan eta hornikuntzan, gomendatu zen erakunde horretarako ere EZS erabiltzea **jarduteko parametro** gisa.

Azkenik, 2019an bi kexa edo salaketa jaso ziren. Lehenengoa, foru diputatu baten **portaerari** buruzkoa zen eta, bigarrena, Diputatuen Kontseiluak Erabaki zehatz bat hartu zuela-eta diputatu guztiek izandako portaerari buruzkoa zen. Lehenengo kasuan (**3/2019**), ez zen EZSren baliorik edo printzipiorik urratu, eta ebatzi zen bigarren kexa artxibatzea, ez zelako uste aztertzeke gaia zenik (**11/2019**).

Hurrengo taulan laburbildu dira gaiak, aztertutako arauak eta emandako ebazpena.

01/2019 (KP)	Opari bat jasotzeari buruzko kontsulta
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3.4.f) eta g)]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen
02/2019 (EP)	Fundazio bateko patronatuko kide izateko gonbiteari buruzko kontsulta
EPPK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3.b), e) eta f) art.]
Aztertutako beste arauak	• EPOELTB ² , 53.5 artikulua, interes gatazka
Ebazpena	Ez du urratzen
03/2019 (KP)	Eginkizunetan jarduteari buruzko kexaren inguruko ebazpena
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • EZSren balioak
Aztertutako beste arauak	• SEAEANE 555/2018 ¹³
Ebazpena	Ez du urratzen
04/2019 (EP)	Lanpostua beste jarduerara batzuekin bateragarria izateari buruzko kontsulta
EPPK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3.b), e) eta f) art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen

12 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsia urriaren 30ean.

13 Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 555/2018 zk., 2018ko abenduaren 18koa.

05/2019 (KK)	Enplegatu publiko bati atzerrira bidiaia bat egiteko gombidapenari buruzko kontsulta
KK	<ul style="list-style-type: none"> • Xedea eta aplikazio eremua (1. eta 3. art.) • Azpikontratazioa [9.4. art.] • Opariak (7. art.)
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • EPPK: Xedea ((b), d) eta h art.); Zuzentasuna [1.d) art.]; Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3.g) eta h) art.] • EZS: Helburuak; Portaera Kodeak (6. art.)
Ebazpena	Urratu egiten du, ez onartzeko betebeharrak
06/2019 (EZS)	Erakundearen Zuzentasun Sistema aplikatu beharreko eremuari buruzko kontsulta
EZS	<ul style="list-style-type: none"> • Definizioa
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • JKKP: aplikazio esparrua (1.3. art.) • EPPK: xedea (1.2. art.) • KK: xedea (1.2. art.) • DLK: aplikazio eremua (3.2. art.) • EZS: zioen azalpena • 4/2007 FA¹⁴: foru sektore publikoa (2.1. art.); merkataritzako sozietateak (6.1.art.)
Ebazpena	EZS jarduketara parametro gisa erabiltzea gomendatu da, nahiz eta ez izan zuzenean aplikatzekoa
07/2019 (BP)	Familiako enpresaren presidenteordea izateko aukerari buruzko kontsulta
EPPK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3. a), b), e) eta f) art.] • Eraginkortasuna (6. art.)
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • EPOELTB²: interes gatazka (53.5 art.); lanaldia eta ordutegia (54.2. art.) • 53/1984 Legea¹⁵: bateragarritasuna (11.2. eta 14. art.)
Ebazpena	Ez du urratzen

12 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsia urriaren 30ean.

14 4/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu eta finantza erregimenari buruzkoa, I. Titulua.

15 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoetako Pertsonalaren Batareazintasunei buruzkoa.

08/2019 (EP)	Ordutegia eta laneko egutegia erakundearen zuzentasun sistemaren arabera aldatzeko arrazoen egokitasunari buruzko kontsulta
EPPK	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3.g) art.] • Profesionaltasuna [5.a) eta b)]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • EPOELTB¹²: bateraezintasuna (53.5. art.) • 53/1984 Legea¹³: bateraezintasuna (11.2. eta 14. art.)
Ebazpena	Ez du urratzen
09/2019 (KP)	Udal bateko zinegotzia izateagatik dietak kobratzearen inguruan zuzendari nagusi batek egindako kontsulta
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3.4.b), c) eta d) art.]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 6/2005 FA¹⁴: bateraezintasunak (24. eta 37. art.) • 1/2014 Legea¹⁵: bateragarritasuna (16. art.)
Ebazpena	Ez du urratzen
10/2019 (KP)	Zuzendari nagusi bat fundazio bateko patronatuko kide izateari buruzko kontsulta
JKKP	<ul style="list-style-type: none"> • Zintzotasuna eta Eskuzabaltasuna [3.4.b), c) eta d) art.] • Denbora aplikazioa [7.5) art.]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • 6/2005 FA¹⁶: bateraezintasuna (24. eta 37. art.) • 1/2014 Legea¹⁷: bateragarritasuna [15.d) art.]; uko egiteko betebeharra (10. art.); kargu uztearen ondorengo debektuak (18. art.)
Ebazpena	Erabakietan uko egiteari buruzko gomendioa Kargu uztearen ondorengo debekurik eza
11/2019 (KP)	Erdi mailako eta goi mailako teknikariek Diputatuen Kontseiluak onetsitako akordio baten inguruan formulatuta salaketari buruzko ebazpena
JKKP	-
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Artibatu egin zen ez baitzen aztertzeke gaia

- 12 Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen Testu Bategina, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onetsia urriaren 30ean.
- 15 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoetako Pertsonalaren Bateraezintasunei buruzkoa.
- 16 6/2005 Foru Araua, ekainaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde, Gobernu eta Administrazioaren antolatetari dagokiona.
- 17 1/2014 Legea, ekainaren 26koa, Kargu Publikoaren Portataera Kodea eta Interes Gatazkek arautzekoa.

12/2019 (KK)	Cipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide baten jabetzako enpresa bat kontratatzeko aukerari buruzko kontsulta
KK	<ul style="list-style-type: none"> • Helburua (1.3 eta 1.4. art.) • Aplikazio eremua (3. art.) • Gardentasuna [2.1.d) art.]
Aztertutako beste arauak	-
Ebazpena	Ez du urratzen Gardentasun gomendioak
13/2019 (DL)	Aldundiko teknikari batek dirulaguntza baten prozedura izapidegilean parte hartzeari buruzko kontsulta
DLK	<ul style="list-style-type: none"> • Interes gatazka [(4.8) eta 9) art.]
Aztertutako beste arauak	<ul style="list-style-type: none"> • EPPK: Helburua: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna [(4.b) eta d) art.]; Zintotasuna eta Eskuzabaltasuna [(2.3.c) art.]
Ebazpena	Uko egiteko betebeharra

b) Jasotako gaiak¹⁸

01/2019, oparia jaso izanaren inguruko kontsulta (KP)

EBAZPENA, (...)K EMANDAKO OPARI BATI DAGOKIONEZ (...), (...) DEPARTAMENTUKO (...) KO ZUZENDARI NAGUSIAK, EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2018ko abenduaren 10ean, (...), (...) Departamentuko (...)ko zuzendari nagusiak, baliabide elektroniko bidez kontsulta bat egin zion Erakundearen Etika Batzordeari, Alemaniako udal bateko alkateak emandako opari bati buruzko kontsulta, hain zuzen.

Adierazitakoaren arabera, 2018ko urriaren 29an, Urretxuko Udalak antolatutako ekitaldi batera gonbidatu zuten, udalerrri horren eta Alemaniako Bavariako eskualdeko Shwartzenbruk-eko hiriaren arteko senidetzea zela eta; izan ere, (...)ko Zuzendaritzak babesa ematen dio Euskal Herriko herri eta hiriek beste gune geografiko batzuetakoekin senidetzeari, betiere herrien arteko lotura eta kultura trukea sustatze aldera. Izan ere, herrien arteko senidetzea lortzearen alde egindako lana eskertzeko, (...)ak Bavariako eskualdeko ardo botila bat opari zion (...) jaunari.

2. -Jasotako opariarekin zer egin behar duen jakin nahi du interesatuak eta, beraz, Erakundearen Etika Batzordearen iritzia eskatu du.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun Sistema onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredugarritasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren barne dago Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea. Horrez gain, foru kargu publikoak eta kargu baliokideak dituzten pertsonak beren funtzioak eta jarduera publikoak egitean bete eta sustatu beharreko jokabide eta jardunbide arauak identifikatzen ditu sistema horrek, baita esparru pribatuan bete eta sustatu beharrekoak ere, baldin eta beren jokabide pribatuak eragina badu jarduten duten erakundearen irudian. Horren guztiaren xedea da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, betiere erakundearen irudia babestuz.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea zortzi baloreen inguruan ezarri da –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna zein bizikidetzeta eta errespetua– eta zortzi printzipio nagusi ditu: lidergo partekatua eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernu eta herritarren entzute aktiboa, eta kontuak ematea.

¹⁸ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema/etika-batzordea>

Balore eta printzipio esparru horretan, jarrera eta jokabide katalogo zabal bat zehazten du kode horrek, hain zuzen ere Erakundearen Etika Batzorde honek jarduteko erreferentziako parametro gisa, era horretan, borondatez koderat atxikitako kargu publikoek edo kodeko xedapenak behar bezala betetzeko zinezko interesa duten hirugarren pertsonen helarazitako kontsultak, zalantzak eta dilema etikoak erantzuteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak aurreikusten du Erakundearen Etika Batzordea osatzea organo independente gisa, hain zuzen ere Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balore, printzipio eta jardunbideak bultzatu, sustatu, babestu eta betetzen direla bermatzeko, baita erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetze edo jardunbide desegokiri aurrea hartzeko ere.

Berme organoaren funtzioak kargu publikoetan eta kargu baliokideetan islatuko dira, besteak beste.

4.- 2016ko martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak -2018ko urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen- 3.b) artikuluan xedatzen du EEBren eginkizuna dela ebazpen, txosten eta oharren bidez, kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza zein dilema etikoak ebaztea.

5.- Eskatzaileari Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, horren 1.3. arau orokorreko 1. artikuluko b) atalean xedatutakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Kontsulta honen oinarrian gai hau dago: Shwartzenbruk eta Urretxuko herrien arteko senidetzea lortzearen alde (...)ko Zuzendaritzak egindako lana eskertzeko, (...)ak ardo botila bat opari zion (...) jaunari.

Gai horri dagokionez, zintzotasunari eta eskuzabaltasunari lotutako jarrera arauak hau adierazten dute -Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f) puntua-:

f) Foru kargu publikoek ez dute inolako opari, gonbidapen, bidaia, otordu edo ordainketa ekonomikorik onartuko beren funtzioak betetzean hitzaldiak emateagatik edo karguari lotutako jarduerak egiteagatik, baldin eta horiek bere zintzotasuna zailentzen jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke. Kontsulta edo kexen bidez, berme organoak kasuan kasu onargarriak eta onartezinak diren opari, konpentsazio eta onuren zerrenda ezarriko du. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira.

Beraz, hasiera batean gomendatzen da ez onartzea inolako oparirik, baina, gero, baldintza gisa hau zehazten da: "bere zintzotasuna zailentzen jartzen badute, edota parte hartzeko prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke".

Erakundearen Etika Batzordeak aztertu du dagoeneko opariak onartzearen edo ez onartzearen inguruko gaia (aurreko kontsulta batzuei erantzunez hartutako 06/2017 ebazpena eta 08/2018 ebazpena), eta ebazpen horietan adierazi zen bezala, une bakoitzean balioetsi behar da opari izateko bete behar diren ezaugarriak dauden edo ez, hau da, opari bat onar-

tzeak, kontuan hartuta bere ezaugarriak eta inguruko ezaugarriak, baldintzatu dezakeen Foru Administrazioako goi kargudun batek erabakiak hartzeko duen ahalmena.

Beraz, 08/2018 ebazpenean esan zen moduan “ez da erraza ezartzea gauza bat noiz har daitekeen oparizat edo kortesiako xehetasun gisa soilik; izan ere, beste administrazio batzuetan hartutako jarduketa arauetan ez bezala (Galiziako Xunta eta Madrilgo Udala, besteak beste), Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak ez du erreferentziatzen har daitekeen muga ekonomikorik ezartzen (hortik abiatuta opariak onartu edo ez onartu jakiteko), baizik eta adierazten du berme organoak, kontsulta edo kexen bitartez, ezarriko duela, kasuen arabera, noiz diren onargarriak edo ez-onargarriak opariak, konpentsazioak edo onurak.

EEBren aburuz, zaila da ekonomia muga bat ezartzea, hain zuzen, uste dugulako ezinbestekoa dela egoera bakoitza, bere ezaugarrien arabera, testuinguruan kokatzea, eta opariaren balio ekonomikoa ez ezik beste faktore batzuk ere kontuan hartzea; horrenbestez, gure erabakia da EEB erakundeak ezarriko dituela, sortzen diren arazoak aztertuta, opari horien onargarritasuna zehaztuko duten irizpideak”.

Beraz, arau orokorra inolako oparirik ez jasotzea izan beharko luke, orain aztertzen ari garen zalantza edo nahasketa motak saihesteko, eta hori da, hain zuzen ere, EEB honek egiten duen gomendio orokorra. Nolanahi ere, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea prestatu zenean ez ziren kontuan hartu mota honetako egoerak, baizik eta beste opari mota batzuen inguruko azterketa egin zen, hau da, Foru Administrazioetik eta neurri txikiago batean beste Administrazio batetik etorkizunean lor daitekeen etekinaren truke enpresa, entitate edo partikularrek eman ditzaketen opariaren inguruko azterketa.

Hau adierazten da 3.4.g artikuluan:

*Edonola ere, Foru Aldundiaren irudia babesteko, **kontratatu diren edo ardura publiko-koen berariazko esparruan objektiboki kontratu daitezkeen enpresa edo partikularrek egindako opari, gonbidapen edo hitzaldi eskaintzei uko egingo diete** foru karguek. Oparia edo gonbidapena emango balitz, berehala foru administrazioaren edo sektore publikoko erakundearen esku jarri beharko litzateke, dagokiona egiteko.*

Eta zalantzarik izanez gero:

i) Kargu publikoak ildo horretan inolako zalantzarik badu, hori berme organoari helarazi beharko dio horretarako zehaztutako bideak erabiliz, eta, nahi izanez gero, eskaeraren isilpeko tramitazioa eska dezake.

Beraz, oparia onartzen bada hainbat arrazoiengatik (okasioa edo oparia eman duen agintaria kontuan hartuta), prozedurak ezartzen du batzorde honi jakinarazi behar zaiola, kasu honetan egin den bezala.

Berriz ere, aurreko ebazpenetan ezarritakoa errepikatzen dugu, hau da, ezin dugula entregatutako objektuaren balioa ahaztu; ezin dugula alde batera utzi proportzioaren esanahia, eta opari bat onartzeak eragin negatiboa sor dezakeela funtzioak betetzeko unean, interesatuak ordezkatzeko duen erakundearen inpartzialtasuna eta integritatearen irudia kaltetu dezakeelako, edo, iritzi publikoari begira, herritarrek erakundeengan duten konfiantza higatzen duen elementu gisa har daitekeelako. Beraz, sen ona aplikatu behar da eta proportzionaltasunaren printzipioa kontuan hartu.

Kasu honi dagokionez, kontuan hartuta Alemaniako udalerrri bat dela eta ez duela harreman zuzenik (...)ko Zuzendaritzarekin, ez dugu uste opari horren atzean isilpeko helbururik dagoenik, baizik eta ohiko kortesiako opari bat dela, kasu honetan tokiko produktu gastronomiko bat.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenengo.- Interesdunak Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 3.4. artikulua zintzotasunari eta eskuzabaltasunari dagozkion balio etikoei buruzko f) eta i) azpiataletan ezarritakoaren arabera jokatu du, zuzenean jarri baitu oparia Foru Administrazioaren eskuan kontsulta EEB honi eginez.

Bigarren.- Gipuzkoako Foru Aldundiko eta bere sektore publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistemaren arabera, adierazitako testuinguruan aipatutako oparia onartzeak ez du urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea.

02/2019, fundazio bateko patronatoko kidea izateko gonbiteari buruzko kontsulta (EP)

(...) GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ORGANISMO AUTONOMOA DEN (...)KO GERENTEAK EGINDAKO KONTSULTAREN INGURUKO EBAZPENA, (...) FUNDAZIOKO PATRONATUKO KIDE IZATEKO GONBIDAPENA DELA ETA

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakunde Etikako Batzordera bidalitako posta elektriko baten bidez, 2019ko otsailaren 4an, interesdunak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren erakunde autonomoa den (...)ko gerenteak, Batzordearen iritzia eskatzen du (...) Fundazioaren Patronatuan sartzeko jaso duen gonbidapena onartzeari buruz.

2.- Bere posta elektronikoan, eskatzaileak adierazten du gonbidapen bat jaso duela erakunde horren Patronatuan parte hartzeko. Azaltzen du ez duela inolako ordain-saririk eskuratuko horregatik eta Patronatuko bileretara joan beharko duela, 4 saio urtean gutxi gorabehera, ziurrenik arratsaldean. Interesdunak Batzordearen iritzia jakin nahi du, ea nolabaiteko bateraezintasunik gertatzen den Erakundearen Zuzentasun Sistemak zehazten duenarekiko.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun Sistema onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredugarritasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren markoan, 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Kode Etikoa eta Kudeaketa Ona onartu zen (aurrerantzean

Kode Etikoa), zeinak ezartzen baititu foru enplegatu batek bere zereginekin zerikusia duten jarduera profesional guztietan begiratu behar dituen balio etikoa eta jarrera arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduera profesionalaren arauak.

2.- Kode Etikoak ezartzen du Erakunde Etikaren Batzordea, 2016ko martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuz onartua, izango dela arlo honetako berme goreneko organoa eta aplikazioari buruzko gaiak erabakiko dituen.

Kode Etikoarekin zerikusia duten gaiak ebazteko, langileen ordezkariak bateratuak izendatutako pertsona batek parte hartuko du Batzordean.

3.- Foru dekretu horren arabera, EEBri dagokio tramitatzea eta ebaztea jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Eskatzaileari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegatu publikoa izanik, Kode Etikoa aplikatzen zaio, xedea ezartzen duen Kode Etikoaren 1.1 artikuluari jarraikiz.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Gaia hauxe da: ea baden nolabaiteko bateraezintasunik, hartara interesdunak ezin onartze-ko (...) Fundazioko Patronatuko kide izateko gonbidapena.

1.- (...) Fundazioa belaunaldi arteko elkartasun sare bat da, (...) sustatzen duena eta gizarte zibiletik sortu dena; boluntarioak dira bertako partaidea, indarrak batzea erabaki dutenak (...)ren erronka globalari aurre egiteko.

2.- Interesduna (...)ko gerentea. Lanpostu hori izendapen librekotzat definitua dago (...)ko lanpostuen zerrendan. (...)tik (...)ko langilea da; eta (...)tik, bertako kudeatzailea.

3.- Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak (aurrerantzean, EPOE), Hirugarren Tituluan, enplegatu publikoaren eskubide eta betebeharrak eta aplikagarri zaien eredu-ko kodea dakartza. Futzioak betetzean bateraezintasun eta interes gatazka balizkoei dago-kienez, 53.5 artikuluan dio enplegatu publikoek Interes pertsonala duten gaietan abstenitu egingo direla eta, lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan bade-zaikete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.

4.- Bestalde, Kode Etikoak, balio etikoaren xedeetan sartzen ditu «enplegatu publikoaren herritarren aldeko zerbitzuaren bokazioa eta orientazioa sustatzea» eta «erakunde per-tenentziaren eta profesionaltasunaren zentzua garatzea funtzio publikoak betetzean, eta bikaintasuna bilatzea zerbitzu publikoaren ideia gisa».

Dagokigun honetan, bai (...) Fundazioak, bai (...), xede soziala partekatzen dute; izan ere, biek ala biek talde jakin batzuen hobekuntzaren alde lan egiten dute; (...)ren kasuan (...) eta (...)ren kasuan, (...). Interesdunak bi erakundeetan parte hartzea bere konpromisio sozia- laren islatzat jo daiteke, bat datorrenak Kode Etikoan adierazten den zerbitzu publikoaren bokazioarekin eta bikaintasunarekin.

Interes gatazka balizko bati dagokionez, gerta litekeena bi erakundeetan parte hartzea- gatik, esan behar dugu Kode Etikoak jasotzen duen bateraezintasuna interes publiko eta

pribatuen arteko aurkatzeari dagokiola. Horrela ondorioztatzen da Zintzotasun eta esku-zabaltasun balioen inguruko jarrerara arauetatik (3. artikulua):

(...)

b) *Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, langile publikoak eskumena duen erakundeari edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Berme organoari ere kontsulta helarazi ahalko dio*

(...)

e) *Interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak hartzen dituen erabakietan **berezko interes pribatuak baditu, edota izaera publikokoak**, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.*

f) *Interes gatazka dagoela dirudi foru kargu publikoaren ustez, bere eskumeneko jarduera, esku hartze edo erabakiek ez badute eraginik bere interes pertsonaletan, familia interese- tan edo berari lotutako hirugarren pertsonen interesetan, ezta pertsona horiek nolabaiteko harremana izandako enpresa edo entitateen interesetan; baina ikuspegi objektibotik begiratuta, jarduera, esku hartze edo erabaki horrek erakundearen irudia zuzenean eta nabarmen kaltetzen badu herritarren aurrean.*

(...)

Ezin da ondorioztatu, interesdunak ekarritako datuetatik, gai honetan interes publikoa auzitan jar litekeenik; izan ere, (...)ko Patronatuko kide izateko gonbidapenaren arrazoia da, hain zuen, (...)ko gerentea izatea, ez inolako arrazoi pertsonalik izatea. Edonola ere, ez da ahaztu behar inoiz egoera hori aldatuko balitz eta interes pribatuen eta interesatuaren lanpostuaren interesen arteko gatazka sortuko balitz, EEB honek besteetan esan duen bezala, eta Kode Etikoak diotenari jarraikiz, interesdunak ez luke parte hartu beharko prozedura horietan (3.c artikulua).

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Bakarra.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemari jarraikiz, zehazki Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Kode Etikoaren eta Kudekaeta Onaren 3. artikulua dakartzan araei jarraikiz, (...) Fundazioko Patronatuko kide izateak ez du hark dioena apurtzen.

(...) JAUNAK (...)K BETETZEN DITUEN FUNTZIOEN INGURUAN AZALDUTAKO KEXA

I.- KONTSULTA

1.- 2019ko otsailaren 6an Erakundearen Etika Batzordera zuzendutako kexa bat jaso zen erregistro bidez. Bertan interesdunak zalantzan ipintzen zuen (...)ren funtzio publikoak aplikagarri zaion Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean portaerari dagokionez ezarritako balio eta jokabide arauetan egokitzen ote ziren.

Idatzian (...)n lanpostu bateko hautaketa eta izendapen prozesuarekin lotuta hainbat inguruabar deskribatu ostean, interesdunak iradokitzen du (...)k ordenamendu juridikotik kanpo jardun ahal izan duela modu deliberatuan, eta jakinaren gainean.

2.- Interesdunak dagokion kexa ipini du eta Erakundearen Etika Batzordeari horri buruzko ebazpena eman dezala eskatzen du.

II. ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta hartako sektorearen Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen. Sistema horren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna sendotu nahi dira nortasun ikur modura.

Sistemak Gipuzkoako Foru Aldundiko kideen eta Gipuzkoako Foru Administrazioiko goi kargudun publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea (JJEK) barneratzen du, eta foru kargu publikoak eta baliokideak dituzten pertsonak beren zeregin eta jarduera publikoak edo, hala badagokio, pribatuak gauzatzean bete eta bultzatu beharko dituzten portaera eta jardunbide arauak identifikatzen ditu, betiere, portaera eta jardunbide horiek beren zerbitzuak emateko esparru den erakundearen irudian eragina izan badezakete. Hori guztiori, zuzentasuna eta eredugarritasuna bultzatzeko asmoz, erakundearen irudia babestuz.

2.- JJEK kodea zortzi baliotan egituratzen da –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, leialtasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, efizientzia eta bizikidetzeta eta errespetua-, eta zortzi printzipio ditu ardatz –lidergo partekatua eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen irekiera, euskara kudeatu eta berritu, bultzatu eta erabiltzeko eredu berriak, kohesio ekonomiko eta soziala eta lurralde arteko oreka, harreman gobernua eta herritarrenganako entzute aktiboa eta kontuak ematea-.

Balio eta printzipioen esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta jardunbideen katalogo zabala barneratzen du, eta katalogo hori da Erakundearen Etika Batzordeak erabili behar duen erreferentziarako parametroa Kodera berariaz atxikitako kargudun publikoek edo bere aurreikuspenak egiaz bete daitezten egiazko interesa duten hirugarren pertsonak hartara eramandako kontsulta, zalantza eta dilema etikoei erantzuna emateko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak Erakundearen Etika Batzorde (EEB) baten sorrera aurreikusten du aparteko organo modura, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balio, printzipio eta jardunbide arauak betetzen direla bultzatu, sustatu, begiratu eta bermatzeko zereginekin, nahiz erakundearen irudia kalte dezakeen edozein ez betetze edo jardunbide oker prebenitzekoarekin.

Organo berme emailearen funtzioak, besteak beste, kargu publiko eta baliokideen gainean proiektatuko dira.

4.- 3/2016 Foru Dekretuan, martxoaren 1ekoan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Erakundearen Etika Batzorde eratzekoan (urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuak aldatua), 3.b) artikuluan xedatzen denez, EEB batzordeei dagokie kargu-dun publikoek planteatutako kontsulta, zalantza eta dilema etikoak ebaztea, ebazpen, txosten edo ohar bidez.

5.- Eskatzaileari JJEK kodea aplikatzen zaio haren aplikazio eremua ezartzen duen 1.3 arau orokorreko 1. zenbakiko a) hizkiaren arabera.

6.- Erakundearen Etika Batzordeko presidentek muzin egin dio ebazpen honetan parte hartzeari.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Interesdunak keza bat ipini du EEB batzordearen aurrean (...)ren funtzio publikoak aipatu (...)ri aplikagarri zaion JJEK kodean ezarritako balio eta jokabide arauekin bat ote datozen.

2.- Aurkeztutako idatzian, interesdunak zehaztasun osoz aipatzen ditu (...)n (...)ko lanpostu bat estaltzearekin lotutako izendapen prozesuari dagozkion nondik norako guztiak.

Bestalde, interesdunak dokumentu gisa Arartekoaren txosten bat eta gaiaren gaineko ezagutza izan zuen Administrazioekiko Auzien Epaitegiaren epaia gaineratu zituen, berriaz adierazi bi erakundeok interesdunaren alde agertu direla. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai bat aipatzen du, EEB batzorde honetara helarazten ez duena, eta hari buruz errekurritu egingo dela esatera mugatzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko aipatu den epaiaren aurka, Administrazioekiko Auzien Epaitegiak emandakoaren aurka, ipinitako apelazio-errekurtsioa ebazten duen epaia da. Epai horretan Auzitegi Nagusiak ebazten du Foru Aldundia zuzenbidea betetz jardun dela, eta Administrazioekiko Auzien Epaitegiak emandakoa atzera botatzen du.

Edozein kasutan, horri buruz adierazi behar da ez dela EEB batzorde honen zeregina zenbait jokabide ordenamendu juridikoaren arabekoak ote diren aztertzea, izan ere, horretarako badaude bide eta organo berezko eta egokiagoak.

3.- Aurkeztutako idatzian EEBari buruz egiten den berariazko aipamenari dagokionez, interesdunak adierazten duenez, 2016ko irailaren 3tik hara jo du informazio eskean; haatik, zuzentasuna@gipuzkoa.eus helbidean jasotako posta elektronikoen erregistroan agertzen denez, lehendabiziko posta 2018ko apirilaren 17an jaso zen eta hartan ez zen inolako eskaerarik egiten, baizik eta Arartekoaren txostena igorri baino ez zen egiten EEB batzordeak haren berri izan zezan, baina haren aldetik inolako ebazpenik eskatu gabe. Posta horren ondotik antzeko ugari iritsi ziren, idatzian berriaz aipatzen dena barne, 2018ko irailaren 3koa. Posta horri 2018ko irailaren 3an bertan erantzun zitzaion, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren web-orrialdera jo zezala adieraziz, han barneratzen baita eskatutako informazioa.

4.- Interesdunak zalantzan ipintzen du (...)ren jarrera JJEK kodean jasotako balioen arabera ote den; haatik, Auzitegi Nagusiaren ondorioak kontuan izanik eta orain arte

helarazitako datuak oinarritzat hartuz, EEB batzorde honek ez dezake adierazi haren jardunbidea ordenamendu juridikoaren aurkakoa eta Erakundearen Zuzentasun Sistemaren kontrakoa izan denik, izan ere, itxura guztien arabera, hartutako erabakiak Zuzenbidearen arabekoak izan ziren eta bere funtzio publikoak egokiro bete zituen, haren jarduna zalan-tzan ipin zezakeen JJEK kodean ezarritako balio eta printzipioak urratu gabe.

Adierazitakoaren arabera, Erakundearen Etika Batzordeak, guztien adostasunarekin, eman du hurrengo

EBAZPENA

Bakarra. Aurkeztutako kexa artxibatzea martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuko 7.2. artikularen arabera, JJEK kodean aurreikusitakoei dagokienez inolako ez betetzerik ikusten ez delako.

04/2019, interesdunak adierazitako jarduerekin bere lanpostua bateragarri izateari buruzko kontsulta (EP)

(...)K, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ORGANISMO AUTONOMOA DEN (...)KO (...)K, EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO EBAZPENA

I.- KONTSULTA

1.- 2019ko martxoaren 1ean foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordera igorritako posta elektronikoz bidez, interesdunak, (...) erakundeko langileak, (...) Euskal Elkarterko kide dela eta bertako (...) lantaldea nahiz (...) koordinatzen dituela adierazi zuen. Berariaz adierazten du bi kasuetan jarduera bere laneko ordutegitik kanpo betetzen duela eta inolako ordainsaririk jaso gabe.

2.- Interesdunak adierazitako jarduerekin bere lanpostua bateragarri izateko aukerari buruz EEB batzordearen iritzia ezagutu nahi du.

II. ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Foru Gobernuaren Kontseiluaren erabakiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta hartako sektorearen Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen. Sistema horren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna sendotu nahi dira nortasun ikur modura.

Sistema horren esparruan, 2017ko azaroaren 7ko Foru Gobernuaren Kontseiluaren Erabakiz, Gipuzkoako foru enplegu publikoaren Etika eta Kudeaketa Oneko Kodea onartu zen (GEKOK). Bertan, foru langile publikoek beren eginkizunekin lotutako jarduera profesional guztietan bete beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzeaz gain, kudeaketa oneko printzipioak eta jardunbide profesionaleko arauak ezartzen dira.

2.- GEKOK kodean ezartzen denez, EEB batzordea, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuz sortua, izango da berme goreneko organoa eta haren aplikazioari buruzko gaiak ezagutu dituen.

GEKOK kodearekin lotutako gaiak ebazteari begira, langileen ordezkariak izendatutako pertsona batek ebazpen horretan parte hartuko du.

3.- Aipatu foru dekretuaren arabera, EEBridagokio Erakundearen Zuzentasun Sistemaren garapenerako tresna ezberdinetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez bete-
tzearekin lotuta jasotako kexa eta salaketak izapidetu eta ebaztea.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiko organismo autonomo baten langile publikoa den eska-
tzaileari GEKOK kodea aplikatzen zaio haren xedea ezartzen duen GEKOK kodeko 1.1.
artikuluari jarraiki.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren organismo autonomoa den (...)ko langilea da interesdu-
na. Aipatu erakundearen jardueraren xedea Gipuzkoan (...)n lagungarri diren zerbitzu eta
laguntzak ematea da.

Bestalde, (...) kide dela adierazten du. Elkarre horren xedea, besteak beste, (...) lotutako
jarduerak bultzatu eta ikertzea da, eta (...) gizarte kontzientzia bat sortzera bideratutako
ekintzak bultzatzea eta (...)ren esparruan beren lana garatzen duten profesionalak aitortu
eta pertsonalizatzea. Hartako bazkide modura, Elkarrearen barnean bi lantalde koordina-
tzen ditu. Lan hori bere lan ordutegitik kanpo betetzen du eta inolako ordainsaririk jaso
gabe.

2.- Ez da EEB kargu edo funtzio publikoa eta aldi berean jarduera pribatuak aurrera era-
mateak bateragarriak ote diren eta Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezarritakoarekin
(EZS) bat datorren zalantzan jartzen duen kontsultak jasotzen dituen lehen aldia; gogo-
rarazi behar da EEB horren xedea zenbait esku-hartze edo egoera ESZ sistemaren ezartzen
diren balio, printzipio eta jokabide arauen arabekoak diren balioetsi eta ebaztea dela,
baina ez duela inolaz ere ordeztzen langileen bateraezintasunen araubidea aplikatu, ba-
teragarritasunei buruzko eskaerak izapidetu eta hura onartzeko baldintzak kontrolatzeko
eskumena duen organo edo unitateak igorri beharko duen bateragarritasun administrazio-
tiboko derrigorrezko baimena. Horrenbestez, EEB honen ebazpenak ez du salbuesten
dagokion organoari bigarren jardura publiko edo pribatu bat indarreko araudiaren arabe-
ra burutzeko dagokion baimenari buruz kontsultatzeko betebeharra.

3.- Aztergai dugun kasua EEB honek berriki emandako 2/2019 ebazpenaren antzekoa da.
Horrenbestez, sarritan helduko diogu hartan adierazitakoari.

Aztergai dugun kasuan, hala (...)k nola (...) elkarrekin antzeko helburu soziala dute, izan ere,
biek lan egiten dute (...); lehendabizikoaren kasuan (...)kin lotuta eta bigarrenengoaren kasuan
(...)kin lotuta.

GEKOK kodean adierazten diren balio etikoko helburuen artean zera ezartzen da “Langile
publikoen herritarren zerbitzuko bokazioa eta orientazioa sustatzea” eta “Erakundearen
parte izatea eta funtzio publikoak burutzean profesionaltasuna garatzea, baita zerbitzu
publiko gisa bikaintasuna bilatzea ere”. 2/2019 ebazpenean adierazten zen moduan, foru
sektore publikoko langilea den interesdunak, aldi berean, bere funtzio publikoak betetzen
dituen organismo autonomoaren antzeko helburu soziala duten elkarrekin parte hartzen
du bere bizitza pribatuan. Hori interesdunak herritarrenganako duen konpromiso zibil in-

dartsuaren isla modura uler daiteke, GEKOK kodean adierazten den zerbitzu publikoaren bokazioarekin eta bikaintasunarekin bat letorkeena.

Bi erakundetan parte hartzearen ondorioz gerta daitekeen balizko interes gatazka bati dagokionez, adierazi behar dugu GEKOK kodean jasotzen den bateraezintasunaren espiritua interes publiko eta pribatuen arteko talka duela aipagai. Hori ondorioztatzen da Leialtasunaren eta Eskuzabaltasunaren balioekin lotutako jokabideen arauetan ezarritakoari so (3. artikulua):

(...)

b) **Interes publiko eta pribatuen** arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, langile publikoak eskumena duen erakundeari edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Berme organoari ere kontsulta helarazi ahalko dio

(...)

e) Interes gatazka sortzen da foru langile publikoak bere **lanpostuko** edo bere jarduera profesionaleko eremuko **interesak** eta berezko **interes pribatuak** edo izaera publikoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek nolabaiteko harremana izan duten enpresa edo erakundeenak, aldi berean eman daitezkeen gaiekin lotutako prozeduretan parte hartzen duenean.

f) Interes gatazka zantzua ematen da foru langile publikoak bere eskumenekoak diren gaiekin lotutako prozeduretan jarduteak edo esku hartzeak bere interes pertsonaletan, bere senideen interesetan edo berarekin lotutako hirugarrenean, pertsona horiek nolabaiteko harreman mota izan duten enpresa edo erakundeen interesetan, eragina ez dutela uste duenean, baina objektiboki jardun edo esku hartze horrek zuzenean eta modu larrian kaltetu dezakeenean herritarrek erakundeari buruz duten objektibotasun irudia.

(...)

Ezerk ez du pentsarazten, interesdunak emandako datuetan erreparatuz, gai honekin interes publikoa arriskuan ipin daitekeenik, are gehiago kontuan izanik interesdunak ez duela inolako ordainsaririk jasotzen GGEE elkartean parte hartzeagatik eta lantaldeak koordinatzeagatik. Edozein kasutan, ez da ahantzi behar edozein unetan inguruabarrak aldatuko balira eta interes pribatuen eta interesdunaren lanpostuarekin lotutakoen artean balizko gatazkarik gertatuko balitz, EEB honek errepikatu duenez, eta GEKOK kodean ezarritakoari jarraiki, dagozkion prozeduretan parte hartzeari uko egin beharko diola eta aplikagarri den araudiaren arabera (3.c) artikulua).

Adierazitakoaren arabera, Erakundearen Etika Batzordeak, guztien adostasunarekin, ematen du hurrengo

EBAZPENA

Bakarra. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren arabera, zehazki, Gipuzkoako foru enplegu publikoko Etika eta Kudeaketa Oneko Kodeko 3. artikuluan ezarritako arauak aplikatuz, (...)ko langile izan eta (...) Euskal Elkarteko kide izateak

nahiz haren barnean lantaldeak koordinatzeak bere laneko ordutegitik kanpo eta inolako ordainsaririk jaso gabe ez du hartan ezarritakoa urratzen.

05/2019, langile publiko bati atzerrira bidaia bat egitera gonbidatzeari buruzko kontsulta (KK)

EBAZPENA, LANGILE PUBLIKO BATI ATZERRIRA BIDAIA BAT EGITERA GONBIDATU ETA GASTU GUZTIAK ORDAINTZEAREN INGURUAN EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordera (EEB) 2019ko maiatzaren 8an igorritako posta elektronikoko bidez, (...)ko zuzendari (...) andreak kontsulta egin du, bere zuzendaritzako teknikari batek Japoniako biltzar batera joateko jaso duen gonbitari buruz.

Mezuan adierazten denez, (...) enpresak (...) munduko biltzarra antolatu du Japonian. Unibertsitateko doktoreak, Administrazioako eta zenbait erakundetako kideak eta (...) enpresako kideak arduratuko dira hitzaldiak emateaz. Gainera, zenbait instalazio eta toki bisitatuko dira, biltzarraren esparruan.

Enpresa hori ez da Gipuzkoako Foru Aldundiaren zuzeneko kontratista, baina foru Aldundiarekin kontratuak dituzten zenbait enpresaren hornitzaile da, enpresa nagusia baita (...) egiten. Hain zuzen ere, (...) izan ohi du pisu ekonomikorik handiena kontratazio agirietan, berariaz adierazten direnetatik.

Aipatutako enpresak biltzar horretara entzule gisa joatera gonbidatu du (...) Zuzendaritzako teknikari bat, eta bidaiaren, egonaldiaren eta otorduen gastuak ordainduko dizkiola adierazi dio.

2.- Egoerak sortzen dizkion zalantza etikoak ikusita, zuzendariak EEBren iritzia eskatu nahi du, bidaia hori egitea batzordean ezarritakoarekin bat datorren edo ezarritako balio edo printzipioren bat urratzen duen jakiteko.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- 2016ko martxoaren 1eko Foru Gobernuaren Kontseiluaren erabakiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta hartako sektorearen Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen. Sistema horren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna sendotu nahi dira nortasun ikur modura.

Sistema horren esparruan, Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko Erabakiaren bidez, kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionaleko esparrua (KJK) onartu zen; horretan, kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzen dira, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, hala kargu publikoentzat eta foru langile publikoentzat beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan, nola kontratazio prozeduretan parte hartuko duten enpresa eta entitate lizitatzailleentzat.

Bestalde, Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2017ko azaroaren 7ko Erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK) onartu zen; horretan, kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzen dira, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, foru langile publikoentzat, beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan.

2.- Hala EPJK kodearen nola KJK esparruaren arabera, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeak izango du bermerik handiena eta organo horrek ezagutuko ditu horiek aplikatzeari buruzko alderdi guztiak.

EPJK kodearekin lotutako gaien inguruan erabakitzeko, langile guztiak ordezkatzeko dituen pertsona bat izendatuko da, eta kontratazio arloko aditu baten aholkularitza jaso ahalko du, KJKri dagokionez.

3.- Aipatu foru dekretuaren arabera, EEbri dagokio Erakundearen Zuzentasun Sistemaren garapenerako tresna ezberdinetan ezarritako balio, printzipio eta jokabide arauak ez betetzearekin lotuta jasotako kexa eta salaketak izapidetu eta ebaztea.

4.- Gipuzkoako Foru Aldundiko langile publikoa den eskatzaileari EPJK kodea aplikatzen zaio, kodearen 1.1. artikulua arabera, bai eta KJK esparrua ere, horren 3. artikulua arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Gai honetan, beharrezkoa da hala EPJK kodean nola KJK esparruan ezarritakoa kontuan hartzea; izan ere, zalantzak sortzen dituen egoeraren jatorria foru Aldundiko teknikariaren eta biltzarrera joatera gonbidatzen dion enpresaren arteko (zeharkako) harreman hori da, hain justu.

2.- Kontsultan berariaz aipatzen denez enpresa ez dela foru Aldundiaren kontratista, kontratazioari buruzko kodeak horri buruz diona aztertuko dugu, hasteko.

Aipatutako bidaiaren inguruan kodearen aginduek jasotzen dutena aztertu aurretik, kontuan hartu behar dugu gonbita egin duen enpresa ez dela foru-administrazioaren zuzeneko kontratista.

Kodearen helburuak eta aplikazio eremuari buruzko artikuluek diotenez, KJK esparrua hala foru-administrazioko langileei nola lizitazioetan parte hartzen duten enpresei aplikatzen zaie.

1.- Helburua

1.1.- Kode honek kontratazio publikoaren alorreko jardueretan jarraitu beharreko balio etikoak eta jokabide arauak ezartzen ditu, baita kudeaketa onaren eta jarduera arau profesionalen printzipioak ere, hala kargu publikoentzat eta **foru langile publikoentzat** beren eginkizunak betetzearekin zerikusia duten lanbide jarduera guztietan, nola kontratazio prozeduretan parte hartuko duten **enpresa eta entitate lizitatzailleentzat**.

(...)

3.- Aplikazio eremua

(...)

Enpresa eta entitate lizitatzailerik dagokienez, **jarduera esparrua ezarri nahi du kontratazio prozeduraren zuzentasunaren berme** gisa, eta nahitaez betebeharrekoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko lizitazioetan lehiatuko direnentzat eta horien esleipenduntzat.

(...)

Artikulu horiek lehen aldiz irakurtzean, uler daiteke KJK ez dela aplikagarria, aipatutako enpresa ez baita foru Aldundiaren lizitazio baten esleipenduna, eta, beraz, ez dela aztertu beharrik horretan ezartzen diren balioak edo printzipioak urratzen diren. Alabaina, nabarmentzekoa da foru Aldundiaren zenbait lizitazioen esleipendun diren zenbait enpresaren hornitzaile nagusia dela. Are gehiago, enpresa horrek fabrikatzen duen produktuak izaten du lizitazioaren pisu ekonomikorik handiena; horregatik, ezin da ohartarazi gabe geratu.

Gainera, KJK esparruaren aplikazio eremuan enpresa esleipendunei buruz hitz egiten den arren, testutik ondoriozta daiteke bertan ezarritakoa betetzeko betebeharra ez dagokiola soilik esleipendunari; aitzitik, aplikazio eremu zabalagoa dago. Hain zuzen ere, azpikontratazioari buruzko berariazko atal bat dauka, eta hau dio:

9. Azpikontratazioa

(...)

9.4.- **Azpikontraturiko enpresa** Kode honen edukiaz informatua izango da, baita horren **nahitaez betebeharreko izaeraz** ere.

Egia da kasu honetan ez dela berez azpikontrataziorik gertatzen (halakorik balego, ez legoke KJKren aplikazioari buruzko zalantzarik), baina agian ez du garrantzi handirik, Era-kundearen Zuzentasun Sistemaren espirituari heltzen badiogu: kultura etikoa zabaltzea, Aldundiaren jarduera eremutik harago, Gipuzkoako gizarte osoari.

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren Helburuak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistemaren helburua da zuzentasun kultura garatu eta sustatzea, betiere **arduradun eta langile publiko guztiek eta foru publiko zerbitzuak ematen parte hartzen duten pertsona zein entitate guztiek betetzen dituzten funtzioen barne integratuta**. Era horretan, azpiegitura etikoa modu eraginkorrean (...)

(...)

Jokabide kodeak

(...)

6.- Halaber, kontratuak egikaritzean, **esleipendunei, emakidadunei eta hornitzaileei balore, printzipio eta jokabide arauak betetzea eskatuko zaie**, hala badagokio, betiere

dagozkion aldaketekin, baldin eta herritarrei zerbitzu publikoak eskaintzen badizkiete edo ondasun publiko jakin batzuk hornitzen badituzte.

(...)

Beraz, argi geratzen da helburua zerbitzu publikoak ematen zuzenean edo zeharka parte hartzen duten ahalik eta pertsona eta erakunde gehienetara heltzea dela, hornitzaile hutsak barne hartuta. Horretarako, EEBren ustez, nahiz eta enpresa esleipendunaren hornitzaile hutsa den, Erakundearen Zuzentasun Sistemari ezarritakoa aplikatu behar zaio biltzarra antolatzen duen enpresari –esleipendunaren hornitzaile den aldetik–, 6. artikuluan adierazitakoaren harira. Hortik abiatuta, KJKren aginduak aztertzen jarraituko dugu.

Hasteko, gogorarazi behar da zein den Erakundearen Zuzentasun Sistema osatzen duten kode honen eta gainerakoen xedea. KJKren 1.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, helburua da «Foru Administrazioaren eta haren sektore publiko instituzionaleko entitateen **azpiegitura etikoa sendotzea** (...) eta, era horretara, **Gipuzkoako herritarrek** administrazioaren, funtzio publikoaren eta erakundearen beraren edo haren parte diren entitateen zuzentasunean duten **konfiantza sendotzen dutela**».

Beraz, kontua da herritarrek foru-administrazioan eta zerbitzu publikoan duten konfiantza finkatzea eta prebentzio sistema bat zehaztea, zuzentasuna bermatzeko eta interes publikoak lehenesteko, funtzio publikoak gauzatzean traba egin dezaketen beste interes batzuen aurrean.

KJK esparruan ezartzen diren balio eta printzipioetan sakonduz, aipamen berezia merezi du opariak edo antzekoak jasotzeari buruz adierazten duenak:

7.- Opariei uko egitea

Uko egingo zaio baldintza onuragarrietan enpresa edo entitate batek egiten duen edozein opari, mesede edo zerbitzuri, halakoak **ohitura sozialetatik eta adeitasunezkoetatik haragokoak direnean.**

Ikus daitekeenez, ez da opari materialez soilik ari; aitzitik, mesede edo kortesiazko opari bat baino gehiagotzat har daitekeen edozein mesede edo jarrerari buruz ari da, oro har. Gogora dezagun esku artean dugun gaia Japoniarako bidaia bat dela, gastu guztiak ordainduta; hasiera batean, enpresarentzat suposatzen duen kostua jakin gabe, enpresa handia bada seguruenik ez baita ehuneko handia izango, objektibotasunez badirudi eskuarki eta EEB honen arabera kortesiazko oparitzat hartzen denaz harago doala (08/2018 eta 01/2019 Ebazpenak).

Jakina, asmo txarrak ez dagoela jotzen dugu, ez langile publikoaren aldetik, ez eta enpresaren aldetik ere; hala balitz, KJK esparruan jasotzen den beste kasu bat izango litzateke, eta argi eta garbi urratuko luke kodea (eroskeriari buruzko 7.2 artikulua). Baina bi alderdiek asmo onez jardun dutela oinarri hartuta ere, EEB honen ustez, esku artean dugun egoera ohitura sozialetatik harago doa.

3.- Hasieran adierazi dugun moduan, gai honetan ere EPJK kodeak diona azertu behar da. Kasu honetan ere, hasteko, kodearen helburua hartu behar da kontuan; hauxe dio:

1.- Helburua

(...)

b) Foru enplegu publikoaren eremuan azpiegitura etiko bat garatzea, foru langile publikoek euren funtzioak burutzean **eredugarritasun, objektibotasun eta bikaintasuna** nabarmenduko duena.

(...)

d) Foru enplegu publikoaren **inpartzialtasun, profesionaltasun, zuzentasun eta herritarren zerbitzuaren** irudia indartzea.

(...)

h) Balore etikoen eta jokabide arauen eta kudeaketa onaren eta jarduera profesionalaren printzipioak errespetatuz eta sustatuz **herritarrek foru langile publikoengan** eta ondorioz Foru Administrazioarengan eta bere sektore publikoko erakundeengan, zerbitzua ematen diotenei, **duten konfiantza publikoa indartzea**.

Helburu horretan oinarritzen da Erakundearen Zuzentasun Sistema osoa: herritarrek foru-erakundeetan, langileek zerbitzu publikoa emateko duten bokazioan eta funtzio publikoak gauzatzean interes pertsonalik ez izatean duten konfiantza sendotzea. Ildo horretan, EPJK kodean zuzentasunaren balioarekin lotutako jokabide arauak ezartzen dira (1.d) artikulua):

Zuzentasuna

(...)

d) Era berean, euren lanpostu publikoagatik edo **euren funtzioak burutzean eragina izan dezakeen edozein abantaila ukatu** edo ekidingo dute, zuzenekoa edo zeharkakoa, edozein pertsona edo erakundeak proposatutakoa.

(...)

Bestalde, Zintzotasuna eta Interesik eza balioek eta horiekin lotutako jokabide arauak funtsezko garrantzia dute ildo horretan (3. artikulua):

Zintzotasuna eta Interesik eza

(...)

g) **Foru langile publikoek ez dute** oparirik, gonbidapenik, **bidaiarik**, janaririk edo konpentsazio ekonomikorik **onartuko** hitzaldiak emateagatik edo komunikabideetan parte hartzeagatik, berariaz euren lanpostuko berezko funtzioak gauzatzeari lotutako jarduerak direnean, eta modu berean ez dute euren **zintzotasuna zalantzan jar dezakeen** onurarik onartuko, edo **erabakiak hartzea baldintzatu dezakeen** edo baldintzatu dezakeela ematen duen bere eskumeneko gaietan parte hartuko (...).

(...)

Izan ere, beste askotan aipatu dugun moduan, ikuspegi etikotik, ez juridikotik, zuzena izatea bezain garrantzitsua da zuzena ematea, herritarrek ez baitute izan behar inongo zalantza edo susmorik, foru-administrazioaren eta horren zerbitzari publikoen zuzentasun eta profesionaltasun irudia arriskuan jarriko duenik. Hain zuzen ere, etika legea betetzea baino gehiago da; ez dago legezko eragozpenik ekintza batzuen eta arlo publikoan aritzearen artean, baina, gizartearen aurrean, egoera horren eraginez funtzio publikoak gauzatzean nolabaiteko baldintzapena dagoela iruditze hutsagatik, zuhurra da beharrezko prebentzio neurriak hartzea.

Are gehiago kontratazioa bezain arlo sentikor eta zaugarrian, herritarrengan susmo gehien sortzen baititu eta, horregatik, berariaz azaltzen da EPJKren 3.h) artikuluan:

(...)

h) Edozelan ere, foru langile publikoek, erakundearen irudia babesteko asmoz, euren ardura publikoen eremu zehatzean kontratatutak izan diren edo objektiboki kontratatutak izan daitezkeen enpresa edo partikularren opari, gonbidapen, kongresuetan edo hitzaldietan parte hartzeko eskaintzak ukatuko dituzte (...)

(...)

Adierazitakoaren arabera, Erakundearen Etika Batzordeak, guztien adostasunarekin, ematen du hurrengo

EBAZPENA

Bakarra.- Kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kode eta Zuzentasun Instituzionalaren esparruko 7. eta 9. artikuluetan, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodearen 1. eta 3. artikuluetan eta Erakundearen Zuzentasun Sistemaren helburuei eta jokabide kodeei buruzko artikuluetan ezarritakoaren arabera, funtzionarioak Japoniako biltzarrean parte hartzeko gonbita onartzeak Erakundearen Zuzentasun Sistemaren balioak, printzipioak eta arauak urratzen ditu, eta, beraz, gonbitari uko egitea gomendatzen dugu.

06/2019, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren aplikazio esparruaren irismenari buruzko kontsulta (EzS)

EBAZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA SEKTORE PUBLIKOAREN ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMAREN APLIKAZIO ESPARRUAREN IRISMENARI DAGOKIONEZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

2019ko maiatzaren 21ean ahozko kontsulta egin zitzaion Erakundearen Etika Batzordeari (EEB), Erakundearen Zuzentasun Sistemaren aplikazio esparruaren irismenari buruz. Berariaz eskatu zen kontsultaren gaineko konfidentzialtasuna gordetzea.

Kasu zehatz honetan planteatzen den zalantza da ea Erakundearen Zuzentasun Sistema aplikatu behar zaion (...jak % 100ean partaidetutako merkataritzako sozietate bati.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun Sistema (EZS) onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredu-garritasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren esparruan, eredu-zko hainbat kode onartu ziren, bata bestearen segidan: 2016ko martxoaren 1eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien kodea (KPK); 2017ko irailaren 5eko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, kontratazio publikoari aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua (KJK); 2017ko azaroaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiz, Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK); eta 2018ko urriaren 2ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta diru laguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua (DLJK).

2.- Bai EPJKak, bai KJKak ezartzen dutenez, 2016ko martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako Erakundearen Etika Batzordea izango da arlo honetako berme-goreneko organoa eta aplikazioari buruzko gaiak erabakiko dituen.

3.- Aipatu foru dekretuaren arabera, EEBri dagokio tramitazioa eta ebatzea jasotzen diren kontsultak, kexa eta salaketa guztiak, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Kasu honetan zalantza jartzen dena ez da jardura bat, edo ustezko gatazkaren bat, Erakundearen Zuzentasun Sistemaren aplikazio esparruak duen irismena baizik; hortaz, ez da beharrezkoa haren aplikagarritasuna egiaztatzea.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Era generikoan planteatzen den lehendabiziko kontsulta da hau. Ez du galdetzen ea Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezarritako balio, printzipio eta/edo jokabide arauak urratzen diren ala ez; aitzitik, zuzentasun sistemaren eta haren barruko eredu-zko kodeen aplikazio esparruak duen irismenari buruzko kontsulta orokorra da. Kasu zehatz honetan, zalantza da ea zuzentasun sistema aplikatu behar zaion merkataritza sozietate bati, zeinaren partaidea, % 100ean, Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikita dagoen erakunde bat baita, (...) alegia.

2.- Lehenik eta behin ikusi behar dugu zer dioen hitzez hitz aplikazio esparruari buruz:

- **EZS**

Erakundearen Zuzentasun Sistemaren definizioa

Gipuzkoako Foru Aldundiko Erakundearen Zuzentasun Sistema helburu, printzipio eta berme-erakunde batzuen bidez osatuta dago; eta, horrez gain, gardentasun, kontu emate eta ebaluazio mekanismoak ere baditu, horien bidez, **Foru Administrazioaren eta foru sektore publikoaren** azpiegitura etikoa eraiki eta zuzentasun politika finantzeko.

- **KPJK**

1.3 Aplikazio esparrua

1.- Kode hau kargu publiko edo kargu baliokide hauei aplikatuko zaie:

- a) Diputatu nagusiari eta foru diputatuei.
- b) Zuzendari nagusiei.
- c) Foru sektore publikoko zuzendari eta gerenteei.
- d) Foru enpresa publikoetako Administrazio Kontseiluetako kideei.
- e) Foru administrazioari atxikitako kontsortzioetako gobernu organoetako kideei.
- f) Beraien sorrerako arauan edo izendapenean aurreko karguei baliokidetuak izan direnei.
- g) Aholkularitza funtzioa duten behin-behineko langileei.

- **EPJK**

1.- Xedea

(...)

1.2.- Balore etiko eta jokabide arau eta kudeaketa on eta jarduera profesionalaren printzipio horiek arduraz betez, langile **publikoek Foru Administrazioaren eta bere erakunde sektore publikoko erakundeen** azpiegitura etikoa indartzen aktiboki laguntzen dute, zerbitzu publikorako bokazioa eta orientazioa garatuz eta gipuzkoar herritarren funtzio publikoaren eta erakundearen beraren eta **bere foru sektore publikoa osatzen duten erakundeen** zuzentasunean duten konfiantza indartuz.

- **KJK**

1.- Helburua

(...)

1.2.- Balio, printzipio eta arau horiek betetze arduratsua dela bide, foru kargu publikoek eta langile publikoek, baita enpresa eta entitate lizitatzailerak eta esleipendunek ere, **Foru Administrazioaren eta haren sektore publiko instituzionaleko entitateen** azpiegitura etikoa sendotzen laguntzen dute era aktiboan, zerbitzu publikoaren ideia eta bokazioa garatzen dituztela eta, era horretara, Gipuzkoako herritarrek administrazioaren, funtzio publikoaren eta erakundearen beraren edo haren parte diren entitateen zuzentasunean duten konfiantza sendotzen dutela.

(...)

- DLJK

3.- Aplikazio eremua

(...)

3.2.- Jokabide Kodearen lehen dimentsioak izaera endogenoa du. Zuzentasun Instituzionaleko Esparru honen aplikazio eremu endogenoa foru **sektore publikoko kargudun edo langileen** gainean proiektatzen da, hots, foru araudi aplikagarrian eta horri dagozkion kodeetan ezartzen denarekin bat onuradun diren entitate, enpresa eta bestelako organismoen zuzendutako laguntza eta diru laguntzak bultzatu, kudeatu, kontrolatu eta ebaluatzeko prozesuetan parte hartzen duten kargudun edo langileen gainean.

(...)

Ikus daitekeen bezala, inon ez dira aipatzen (...) batek partaidetutako merkataritza sozietateak, (...) hori, aldi berean, Aldundiak partaidetutakoa denean. Egiaz, agian ez da eraginkorra zuzentasun sistema aplikatzekoa den kasu eta entitate guzti-guztiak zerrendatzea; izan ere, logikoa denez, gizartearen eta foru administrazioaren beharrak aldatu ahala, figura berriak sortuko dira foru sektore publikoaren barruan. Beraz, zuzentzen izan daiteke, zuzentasun sistemaren barruko hainbat tresnetan ikusi dugun bezala, «foru sektore publikoa» edo «foru administrazioa» aipatzea, eta kasuan kasu aztertzea zeri egiten dion zehazki erreferentzia.

3.- EZSan eta hura osatzen duten tresnetan zehaztu gabe dagoen arren, foru araudian aipatzen da zeri egiten zaion erreferentzia foru sektore publikoa osatzen duten entitateez ari garenean.

Martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzkoak, foru sektore publikoaren sailkapena egiten du I. tituluan:

(...)

2. artikulua. Foru sektore publikoaren sailkapena.

1. Foru Arau honen ondorioetarako, **foru administrazioak (Foru Aldundia), erakundeen administrazioak eta merkataritzako foru sozietateak osatzen dute** Gipuzkoako lurralde historikoaren **foru sektore publikoa**.

(...)

6. artikulua. Merkataritzako foru sozietateak.

1. **Merkataritzako foru sozietateak dira foru sektore publikoaren kapitalean 100eko 50etik gorako partaidetza dutenak.** Partaidetza finkatzeko, foru sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek kapital sozialean dituzten partaidetza zuzenak edo zeharkakoak hartuko dira kontuan.

(...)

Hemen, bada, merkataritzako foru sozietateen aipamen zehatza jasotzen da, adieraziz halakotzat hartuko direla kapitalean foru sektore publikoaren 100eko 50etik gorako partaidetza dutenak. Gogorarazi behar dugu kasu honetan (...)k 100eko 100eko partaidetza duela merkataritza sozietatean, eta (...)k, aldi berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetza duela, 100eko 33an; beraz, printzipioz, badirudi zuzentasun sistemaren aplikazio esparrutik kanpo geratuko litzakeela.

Baina EZSren helburuari buruz hausnartu behar dugu: zein den sistemaren jatorria, zein espiritua eta zein azken xedea.

4.- Askotan gogorarazi dugu zergatik egin duen apustu Gipuzkoako Foru Aldundiak asmo handiko zuzentasun sistema hau bezalako azpiegitura etiko bat sortzearen alde. Arrazoa da, xedean adierazten den bezala, «zuzentasunaren kultura garatu eta sustatu» nahi duela. Hain zuzen ere, eman berri dugun 5/2019 ebazpenean gogorarazi genuen biziki garrantzitsua dela zuzentasun sistemaren eta haren garapen tresnen espiritua, hau da, «herritarrek foru erakundeengan duten konfiantza indartzea» eta «etikaren kultura hedatzea, Foru Aldundiaren jarduketara eremuetatik harago, gizarte gipuzkoar osora». Askotan entzun izan den bezala, azken helburua da Gipuzkoa lurralde eredugarri izatea, baina ez soilik lurraldea zuzentzen dutenei, langile publikoei, kontratuen bidez zerbitzuen prestazioan eta hobekuntzan parte hartzen dutenei edo laguntzak jasotzen dituzten entitateei dagokienez. Gizarte gisa ere eredugarri izatea da helburua; hau da, gizarte gipuzkoarra eredu izatea zuzentasunari dagokienez.

Horri dagokienez, gogorarazi behar dugu ezen, orain arte onartu diren kodeetatik azkeneoak, laguntza eta dirulaguntzei buruzkoak, honakoa dioela zioen azalpenean:

*“(...) foru gobernu hau bere lehen pausoetatik bultzatzen ari den Gobernantza Etikarako politika erakundearen zuzentasunaren kanpo proiektio batean oinarritzen da, zeharo bat eginez, horrenbestez, azken aldi honetan ELGE bera bultzatzen ari den lanildoekin, honakoa baitira: **zuzentasun instituzionala ezin da Foru Administrazioaren eta haren mendeko sektore publiko instituzionalaren barnean itxita geratu, gizartera ere igaro behar baitu**, gizarteko elkarte ehuna, erakunde eta enpresak, kontratazio publikoa eta Gipuzkoako herritar guztiak ere bilduta. Horrela, Instituzioak erantzukizun kolektiboaren zentzua bultzatzen du, jendearen mentalitatea blaituz horren bitartez, **herritarren kulturaren aldaketa eraginez** eta arauak barnera ditzagun lagunduz; **eredugarritasuna azken batean, gizartera igaro ahal izateko funtsezko elementutzat (...)**”.*

Kasu zehatz honetara itzulita, % 100ean (...)ren titularitatekoa den merkataritza sozietate baten aurrean gaude; beraz, litekeena da (...)k eskaintzen duen zerbitzuaren kudeaketan parte hartzea -gogoratu zerbitzu hau, (...), biziki garrantzitsua eta oinarritzakoa dela herritarrentzat-. Gainera, (...) Gipuzkoako lurralde osora hedatzen da. Eta EZSren zioen azalpenean jasota dagoen bezala:

*“(...) Foru Administrazioan **Erakundearen Zuzentasun Politika** bat diseinatu eta bultzatzeko orduan, **legea betetzera mugatu ordez, horren bidez aurrerapausoak eman behar**ko lirateke erakundearen zuzentasun esparrua eraikitzeke eta hori eraginkor bihurtzeko; baita kudeaketa publikoan **jarduera egokiak aplikatu eta garatzeko ere, era horretan, Administrazioaren errendimendua hobetzeko, eta herritarrek jasotzen dituzten zerbitzuak ere hobetzeko (...)**”.*

Hortaz, EZSren irismena ezin dugu mugatu legezketasun formalari eutsiz, legezketasuna ez baita etikaren balioak. Etika legea betetzea baino gehiago da (5/2019 ebazpena), eta, gainera, EEBren eginkizuna ez da araudia betetzen den zaintzea, zuzentasun sistemak aldarrikatzen dituen jardunbide egokiak sustatzea baizik, horiek betetzen direla bermatzea, eta horien inguruan kontzientziatzea.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Bakarra.- Aplikazio esparruaren dimentsio subjektibotik uler daitekeen arren aztergai dugun merkataritzako entitatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Zuzentasun Sistematik kanpo geratzen dela, kontuan hartuta zuzenean parte hartzen duela zerbitzu publikoak kudeatu eta ematen, gure gomendioa da zuzentasun sisteman bildutako balio, printzipio eta jokabide arauak jardunbide egokirako parametro izatea.

07/2019, familia-enpresako lehendakariorde izateko aukeraz egindako kontsultari ebazpena (EP)

EBAZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ORGANISMO AUTONOMO DEN (...)KO (...)K FAMILIA-ENPRESAKO LEHENDAKARIORDE IZATEKO AUKERAZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) 2019ko uztailaren 19an bidalitako mezu elektronikoaren bitartez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren organismo autonomo den (...)ko (...)k iritzia eskatu zion EEBari, integrazio konplexuan eta muntaia mekanikoetan espezializatutako (...) familia-enpresako lehendakariorde izatea onartzeko aukeraren inguruan.

2.- Mezu elektronikoan eskatzaileak adierazi zuenez, enpresa hori bere aitak sortu zuen eta sozietatea soilik familiako kideez osatuta dago. Karguak berriro beharrean dauden honetan, enpresaren lehendakariorde izateko proposamena egin diote interesdunari. Kargu horrek ez du inolako ordainsaririk eta lan karga urtean hiru bilerakoa da, laneko ordutegitik kanpo, betiere. Interesdunak jakin nahi du Batzordearen iritziz kargu hori onartzeak bateraezintasunik sorrarazten ote duen Erakundearen Zuzentasun Sistemak zehazten duenarekiko.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (EZS) onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredugarritasuna ezarri nahi dira nor-tasun ezaugarri gisa.

Sistema horren barruan, Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPKK) onetsi zuen 2017ko azaroaren 7an, eta bertan

ezarri zituen foru aldundiko enplegatu publikoek beren funtzioak gauzatzeari begira egiten dituzten jarduera profesional guztietan kontuan hartu beharrekoak diren balio etikoak eta jokabide arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduteko arauak.

2.- EPKKak ezartzen duenaren arabera, 2016ko martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako EEBa izango da arlo honetako berme goreneko organoa, eta hark erabakiko ditu aplikazioari buruzko gaiak.

EPKKri loturiko gaiak ebazteko, langileen baterako ordezkariak izendatutako pertsona batek parte hartuko du batzordean.

3.- Foru dekretu horren arabera, EEBarri dagokio tramitatzea eta ebaztea jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Eskatzaileari, foru administrazioko enplegatu publikoa den heinean, EPKK aplikatzen zaio, bere 1. artikuluan ezarritakoaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Interesdunak galdetzen du ba ote dagoen bateraezintasunik familiako enpresan lehendakariorde kargua hartu eta (...)ko (...)ri eustea eragozten dionik; lanpostu hori izendapen askekoa da, eta (...)ko lanpostuen zerrendan dago definituta. Interesduna 1984tik da (...)ko langile, eta 1989tik da bertako (...).

1.- Lehendik ere EEBak adierazi izan duenez (01/2018 Ebazpena), ez dagokio batzorde honi funtzio publikoa gauzatu bitartean egiten diren jarduera pribatuen bateragarritasuna ezartzea, beste organo batzuek baitute horretarako eskumena. Soilik gogoraz dezagun 53/1984 Legeak, abenduaren 26koak, Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Pertsonalaren Bateraezintasunari buruzkoak, ezartzen duela bateraezintasun araubidea; bertan adierazten da, administrazio publikoetatik kanpo edozein jarduera egiteko, bateragarritasun aitortpena behar dela aurrez (14. artikulua). Oro har, bateraezintasun izango dira langileen inpartzialtasuna edo independentzia arriskuan jar ditzaketen jarduera pribatuak, bai eta haien betebeharrak behar bezala betetzea eragozten edo kaltetzen dutenak eta interes orokorrari kalte egiten diotenak ere (11.2 artikulua).

Ildo berean, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateginak¹⁹ (aurrerantzean EPOETB) III. tituluari jasotzen ditu enplegatu publikoen eskubide eta betebeharrak eta aplikatzekoa zaien Ereduzko Kodea. Funtzioak betetzean gerta daitezkeen bateraezintasun eta interes gatazka balizkoegi dagokienez, 53.5 artikuluan dio enplegatu publikoak abstenitu egingo direla interes pertsonala duten gaietan eta, lanpostu publikoaren interesekiko gatazka ekartzeko arriskua izan badezakete, jardun pribatu eta gainerako interes guztietan ere bai.

2.- Adierazi den moduan, ordea, EEB honek balioetsi behar du, hain zuzen, jarduera pribatu horrek foru sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistemak ezarritako balio eta printzipioak urratuko ote lituzkeen.

¹⁹ 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

EPKKak ez du inon ere aipatzen enplegatu publikoen bateraezintasun araubidea; aldiz, erreferentzia egiten die funtzio publikoan aritzeko errespetatu behar diren jokabide eta jardunbide arauai.

Gai honi lotuta, nabarmentzekoa da zintzotasun eta interesik ezaren balioei buruz esaten dena: langile publikoak interes publikoa betetzera bideratu behar du bere jarduna (3.a artikulua). 02/2019 Ebazpenean adierazi genuen moduan, EPKKak jasotzen duen bateraezintasunaren funtsa interes publikoaren eta pribatuaren arteko konfrontazioa da. Horrela ondorioztatzen da **Zintzotasun eta Interesik ezaren** balioen inguruko jarrera arauetatik (3. artikulua):

(...)

b) *Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, langile publikoak eskumena duen erakundeari edo aginteari berehala jakinarazi beharko dio. Berme organoari ere kontsulta helarazi ahalko dio.*

(...)

e) *Interes gatazka sortzen da foru langile publikoak **bere lanpostuko** edo bere jarduera profesionaleko eremuko interesak eta berezko **interes pribatuak** edo izaera publikoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek nolabaiteko harremana izan duten enpresa edo erakundeenak, aldi berean eman daitezkeen gaiekin lotutako prozeduretan parte hartzen duenean.*

f) *Interes gatazka zantzua ematen da foru langile publikoak bere eskumenekoak diren gaiekin lotutako prozeduretan jarduteak edo esku hartzeak bere interes pertsonaletan, bere senideen interesean edo beraiekin lotutako hirugarrenean, pertsona horiek nolabaiteko harreman mota izan duten enpresa edo erakundeen interesetan, eragina ez dutela uste duenean, baina objektiboki jardun edo esku hartze horrek zuzenean eta modu larrian kaltetu dezakeenean herritarrek erakundeari buruz duten objektibotasun irudia.*

(...)

(...) organismo autonomoa da eta (...), berriz, integrazio konplexuan eta muntaia mekanikoetan espezializatutako enpresa bat. Hortaz, hasiera batean ez dirudi bi jarduera horiek gatazkarik sorraraz dezaketenik interes pribatuen eta interesdunaren lanpostuari dagozkionen artean, oso arlo desberdinetako jarduerak baitira izatez. Nolanahi ere, hala gertatuko balitz, EPKKak argi eta garbi dio: interesdunak prozedura horietan parte hartzeari uko egin beharko dio (3.c) artikulua):

(...)

c) *Edozelan ere, aurreko letran adierazitako egoeraren bat emango balitz, bereziki interes publiko eta pribatuen arteko edozein gatazka edo gatazka zantzu, **prozedura horretan parte hartzeari uko egin beharko dio**, ezar daitezkeen araudiaren arabera.*

(...)

Azkenik, nabarmentzekoa da lehendakariorde karguak ez dakarrela inolako ordainsaririk eta laneko ordutegitik kanpoko zeregina dela, eta, beraz, errespetatu egiten duela **Eraginkortasunaren** balioa; izan ere, 06/2018 Ebazpenean adierazi genuen moduan, laneko ordutegia “baliabide publikotzat har daiteke, kontuan hartzen badugu enplegatu publikoen soldata herritarren zergen bidez ordaintzen dela, eta, beraz, bete-betean euts dakiok eraginkortasunaren balioari, kasu honetan, lanaldiaren probetxuari (horretaz ari da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina 54.2 artikuluan)”.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Bakarra. - Gipuzkoako Foru Aldundiaren Erakundearen Zuzentasun Sistemaren arabera, eta zehazki Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodeak 3. artikuluan ezarritako arauak aplikatuz, ez da araudiaren kontrakoa aldi berean (...) enpresaren lehendakariorde eta (...)ko (...) izatea.

08/2019, ordutegia eta lan egutegia aldatzearen arrazoiak erakundearen zuzentasun sistemari egokitzeari buruzko kontsulta (EP)

EBAZPENA, (...) FORU ERAKUNDE AUTONOMOKO LANGILE (...)K EGINDAKO KONTSULTARENA, BERE ORDUTEGIA ETA LAN EGUTEGIA ALDATZEAREN ARRAZOIAK ERAKUNDEAREN ZUZENTASUN SISTEMARI EGOKITZEARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2019ko uztailearen 26an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordera (EEB) bidalitako posta elektronikoaren bidez, interesdunak, (...) zentroko arduraduna (foru erakunde autonomoa), EEBren iritzia eskatzen du, bere ordutegian eta lan egutegian aldaketa puntual bat egiteko aurkeztu dituen arrazoiak erakundearen zuzentasun sistemaren balio eta printzipioetan ezartzen denarekin bat datorren jakiteko.

2.- Interesdunak idatzian adierazi duenez, organo eskudunak baimena eman ondoren, uzartu egiten ditu zentroko (...) gisa egiten duen lana eta (...)ko Unibertsitateko campusean irakasle gisa egiten duen lana, «...» izeneko irakasgaia ematen ikastaro eta gradu desberdinetan.

Hurrengo ikasturterako, Unibertsitateak proposatu dio Bilboko Campusean jardutea, 8:00etatik 9:40ra. Ordutegi hori azken urteetan Donostiako Campusean izan duenaren berdina da, eta Aldundiko langile gisa duen eguneko ordutegitik kanpo geratzen da, Aldundikoa 11:00etan hasten baita. Hala ere, bi lantokien artean dagoen distantzia dela eta, Bilboko Campusera lekualdatzeak eragiten du bere ordutegian aldaketa bat egin beharra eskolak eman behar dituen egunetan (24 egun ikasturte osoan zehar).

Interesdunak uste du unibertsitatean irakasten duen irakasgaiak harreman zuzena duela (...)ko (...) bezala burutzen dituen eginkizunekin, ezagutza eremu berean kokatuta daudenez elkar elikatu eta garatzen direlako, eta beraz, honako hau eskatzen du: 1.- bateragarritasu-

na baimentzea, eta 2.- erakundearen zuzentasun sisteman ezarritako balio eta printzipioen arabera aldaketa justifikatuztat jotzea.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak, 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun Sistema (EZS) onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredu-garritasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa.

Sistema horren barruan, Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPKK) nonetsi zuen 2017ko azaroaren 7an, eta bertan ezarri zituen foru aldundiko enplegatu publikoek beren funtzioak gauzatzeari begira egiten dituzten jarduera profesional guztietan kontuan hartu beharrekoak diren balio etikoa eta jokabide arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduteko arauak.

2.- EPKKak ezartzen duenez, 2016ko martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako EEBa izango da arlo honetako berme goreneko organoa eta aplikazioari buruzko gaiak erabakiko dituen.

EPKKari loturiko gaiak ebazteko, langileen baterako ordezkariak izendatutako pertsona batek parte hartuko du batzordean.

3.- Foru dekretu horren arabera, EEBri dagokio jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak tramitatzea eta ebaztea, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Foru Administrazioa den eskatzaileari EPKK aplikatuko zaio hori ezartzen duen 1. artikuluari jarraituta.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Interesdunak bi kontu planteatu ditu; alde batetik, burutzen duen jardueraren eta irakasle lanaren bateragarritasuna baimentzea, eta, beste alde batetik, berrestea ordutegi eta egutegi aldaketa -(...)k du ordutegia eta egutegia ezartzeko eskumena- justifikatuta dagoela, Foru Administrazioa arautzen duten balioen, printzipioen eta jokabide eta jardunbide arauen esparruan.

1.- EEB honetan lehendik ere adierazi denez (01/2018, 04/2019, 07/2019 Ebazpenak), ez dagokio batzorde honi funtzio publikoa gauzatu bitartean egiten diren jarduera pribatuen bateragarritasuna ezartzea, beste organo eta prozedura batzuk baitute horretarako eskumena (abenduaren 26ko 53/1984 Legea, Administrazio Publikoetako langileen batezintasunei buruzkoa, 14. artikulua). Gogorarazten da modu orokorrean ezartzen dela (11.2 artikulua) bateraezinak izango direla langileen inpartzialtasuna edo independentzia konprometitu, bere zereginak galarazi edo horiei kalte egin edo interes orokorrak kaltetu ditzaketen jarduera pribatuak (zentzu berean, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina ²⁰).

²⁰ 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena (53.5 artikulua).

Era berean, EEB honek uste du (...) zentroaren ahalmena dela langilearen ordutegia ezartzea, eta irakasle gisa egiten duen jarduera errazteko neurriak hartzeko aukera baloratzea; adibidez, beharrezkoa den egunetan langilearen sarrera eta irteera ordutegiak malguago eginda.

Hortaz, EEB hau bere zereginera mugatu behar da; hau da, planteatutako gaiak EZSn ezarritako balio, printzipio eta jardunbide arauetara egokitzen diren edo ez argitzera.

2.- Bigarrenik, eskatzen da aitortzea edo onartzea foru zentroko ordutegian bi jarduerak bateragarriak izateko egin behar den aldaketaren atzean dagoen interes publikoa, eta ez soilik partikularra. Interesdunak hainbat arrazoi aipatu ditu, hala nola zentroaren eta unibertsitatearen arteko harremana dela eta «(...)k baliatu dituen aukerak, proiektuak, lan-kidetzak eta formazio saioak», eta «unibertsitateak eta ezagutza foroek (...) zentroari nahiz (...)ko erakunde batek (...) arloan egiten duen kudeaketa eguneratuari ematen dioten ikusgarritasuna».

EPKKak ez du inon ere aipatzen enplegatu publikoen bateraezintasun araubidea; aldiz, erreferentzia egiten die funtzio publikoan aritzeko errespetatu behar diren jokabide eta jardunbide arauak. **Zintzotasuna eta Interesik eza** aldarrikatzen dituzten balioei dagokionez, honako hau azpimarratu du: «Foru langile publikoek ez dute oparirik, gonbidapenik, bidaiarik, janaririk edo konpentsazio ekonomikorik onartuko hitzaldiak emateagatik edo komunikabideetan parte hartzeagatik, berariaz euren lanpostuko berezko funtzioak gauzatzeari lotutako jarduerak direnean (...)» (3.g artikulua). Nahiz eta ikastaroak emateak artikuluan zehazten diren jarduerekin zerikusia izan dezakeen, ulertzen dugu interesdunak Unibertsitatean parte hartzea ez dela foru langilea izatearen ondorioa edo zentroak dituen ezaugarri edo eginkizunena (desberdina izan zen, adibidez, 01/2018 Ebazpenean gertatu zena), (...) erakunde autonomoa baita, eta interesdunak irakasten duen alorra (...) ri buruzkoa da.

Are gehiago, interesdunak idazkian azpimarratzen duen moduan esan daiteke unibertsitatean parte hartzeak zentroan eragin positiboa izan dezakeela, zentroa ezagutarazten eta Administrazioa herritarrengana gerturatzen laguntzen duelako. Gainera, nabarmentzekoa da zentroko (...) izanik (...)z arduratzen dela, eta (...); eginkizun horiek (...)ri buruzko ezagutza espezifikoa eskatzen dute - Unibertsitatean ematen duen irakasgaia-, eta horrek esperientzia handia eskatzen du aipatutako alorrean. Gainera, irakasle den aldetik, behar-tuta dago bere alorrean etengabe prestatu eta birziklatzera, eta horrek eragin positiboa du eskaintzen duen zerbitzuan; izan ere, zentroan bere eginkizunek lotura estua dute irakasten duen gaiarekin.

Gogoratu beharra dago EPKKak ezartzen duela EZSren funtsezko balioa dela **Bikaintasun Profesionala**:

5. Bikaintasun profesionala

a) **Herritarrei zerbitzu hobek emateko xedez**, foru langile publikoek euren lanpostuen funtzioetatik sortutako lanak egingo dituzte, **euren funtzio publikoaren garapenean bikaintasuna lortzeko** profesionaltasun handiko irizpideak jarraituz.

b) Horretarako, foru langile publikoek etengabe garatu eta hobetuko dituzte euren eskumen profesionalak, euren karrera profesionala zabalduz, Foru Aldundiak diseinatzeko dituen formazio programen bidez, **bere profil profesionala optimizatzeko eta**

bere lanpostuari esleitutako funtzio eta lanak egoki burutzeko, eta bere ezagutza eta trebetasunak egindako aldaketetara egokitzeko.

(...)

Esan daiteke beraz, interesdunak unibertsitatean parte hartzeak eragin positiboa duela beregan, eta, zeharka, baita zentroan eskaintzen duen zerbitzuan ere, eta hori bat datorrela, erabat, Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun Sistemaren ezarritakoarekin.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenengoa.- Ez da EEBren eskumena funtzio publikoaren eta jarduera pribatuen arteko bateragarritasuna erabakitzea; dagokion baimena organo eskudunari eskatzea aholkatzen dizugu.

Bigarrena.- EPKkan zintzotasuna eta interesik eza eta bikaintasun profesionala aldarrikatzen dituzten balioei buruz ezarritakoaren arabera, interesdunak irakasle gisa egiten duen lana bat dator Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren erakundearen zuzentasun sistemarekin.

09/2019, zuzendari nagusi batek udal bateko zinegotzi izateagatik dietak kobratzeari buruzko kontsulta (CP)

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSI (...)EK UDAL BATEKO ZINEGOTZI IZATEAGATIK DIETAK KOBRATZEAZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- Foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordean (EEB) 2019ko abuztuaren 16an ahoz egindako kontsultaren bidez, (...) zuzendari nagusiak jakinarazi du zinegotzi jarduten duen udalak dietak ordainduko dizkiela laster udaletik zuzenean soldatarik kobratzen ez duten zinegotziei.

Interesdunak jakin nahi du dieta horiek Erakundearen Zuzentasun Sistemaren ezarritakoa urratzen ote duten.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakundearen Zuzentasun Sistema (EzS) onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredugarritasuna ezarri nahi dira nor-tasun ezaugarri gisa.

Sistemak barne hartzen du Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea (KPKJ), eta identifikatzen du zein diren foru aldundiaren sektore publikoko kargu publikoek zein langile baliokideek beren funtzioak edo jarduera publikoak edo, hala badagokio, pribatuak egi-

ten dituzten bitartean zaindu eta sustatu beharreko jokabide eta jardute arauak, baldin eta horiek zerbitzu ematen duten erakundearen irudian eragina izan badezakete. Horren guztiaren xedea da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, betiere erakundearen irudia babestuz.

2.- KPJKk zortzi balio biltzen ditu: ordezkari-tza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, eta bizikidetzeta eta errespetua. Zortzi printzipio ere biltzen ditu: lidergo partekatua eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitallean oinarritutako gobernua eta herritarren entzute aktiboa eta kontuak ematea.

Balio eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horietan osatzen dute EEB honek baliatu behar duen erreferentziazko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezten interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkionten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemaren aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzeri edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren funtzioak kargu publikoetan eta kargu baliokideetan islatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak, 3.b) artikuluan zehazten du ezen EEBari dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azalduetako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Eskatzaileari KPJK aplikatzen zaio, zehazki, 1.3 arau orokorraren 1. ataleko b) letran jasotakoa; bertan ezartzen da aplikazio eremua.

II. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Hori dagokionez, zalantzan jartzen da udal bateko zinegotzi izateagatik dietak jasotzeak urratzen ote duen Erakundearen Zuzentasun Sistema.

1.- Lehenik eta behin, aztertu beharra dago foru administrazioko goi karguei aplikatzekoa zaien indarrean dagoen araudia.

6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 47. artikuluan ezartzen duenez, zuzendari nagusiak 37. artikuluan foru diputatuentzat ezarritako bateraezintasun erregimenaren mende egongo dira. Bertan diotenaren arabera, 24. artikuluan diputatu nagusiarentzat ezarritako bateraezintasun erregimen bera dagokie horiei; artikulua horrek erreferentzia egiten dio, halaber, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioan diharduten kargu publikodunen bateraezintasunari buruzko legediari.

Ondorioz, diputatu nagusiari ez ezik foru diputatuei eta zuzendari nagusiei ere aplikatu behar zaie 1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, kargu publikoen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituenak, aurreikusten duen bateraezintasun erregimena.

1/2014 Legeak 16. artikuluan arautzen duenez, goi kargudun izatea bateragarria da hautapenezko karguekin:

16. artikulua.- Bateragarritasuna hautapenezko karguekin.

(...)

2.- Lege honen aplikazio-eremuan dauden kargu publikodunek, lehendakariak izan ezik, **bateragarria dute beren jarduera toki-erakundeetako hautetsi izatearekin** edo berrogeita hamar mila biztanle baino gutxiagoko udalerrietako alkate izatearekin, salbu eta toki-erakundean arduraldi eskusiboa edo ordu kopuru jakin bateko arduraldi finkoa badute, betiere legearekin bat etorrita.

(...)

4.- Kasu guztietan, artikulua honetan aipagai diren jarduerari dagokienez, kargu publikodunek soilik jardueretako bakar bati dagokion saria **jaso ahal izango dute**, bera-riazko arautegiaren arabera **beste jarduerari egoki dakizkiokeen dieta eta kalte-ordainak** jasotzeari kalte egin gabe.

Hortaz, legeak dioenez, zinegotzi izateagatik dagozkion dietak jasotzea bateragarria da foru zuzendari karguarekin.

2.- KPJKan ezarrikoari dagokionez, aintzat hartu behar da Erakundearen Etika Batzordeak onetsitako 2017ko aplikazio gidak aldatu egin zuela hura, eta goi kargudunen jardunaren eskusibotasunari buruzko artikulua bat erantsi ziola. Honela dio:

3.4 Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna

(...)

j) Kode honen aplikazio-eremuan dauden kargu publikodunek **arduraldi eskusiboz beteko dituzte eginkizunak** eta ezingo dute aldi berean, ez berek ezta ordezkari ere, ezein postu, kargu, ordezkari, lanbide, merkataritza-jarduera, jarduera profesional edo industria-jardueratan aritu, publikoetan zein pribatu-tuetan, norberaren kontura edo inoren kontura izan, **legeak ezarritako salbuespenei eragin gabe**.

Lehen adierazi bezala, gai honi aplikatu beharreko legeak ezartzen duenaren arabera, bateragarriak dira bai jarduera bera bai eta dagozkion dietak jasotzeko aukera ere.

Nolanahi ere, 01/2016 Ebazpenean adierazitakoa gogorarazi behar dugu: bi kargu publiko betetzeak -aldi berean foru diputatu eta udaleko zinegotzi izanez- bi interes publikoren arteko gatazka sorraraz dezake; horregatik, interesdunak kontuan izan beharko du horri buruz KPJKan jasotakoa:

3.4 Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna

(...)

d) **Interes gatazka sortzen da** foru kargu publikoak **hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu**, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatezko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.

(...)

Horiek horrela:

(...)

b) Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari edo erakundeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen. Halaber, gai horri buruzko kontsulta berme organoari ere helarazi ahal izango dio.

c) Edonola ere, aurreko atalean zehaztutako baldintzetako bat ematen bada, **ez du parte hartuko** dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka.

(...)

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Bakarra.- KPIKak zintzotasun eta eskuzabaltasun balioei buruzko artikuluetan ezartzen duenaren arabera, zinegotzi karguari dagozkion dietak jasotzek ez du urratzen Gipuzkoako Foru Aldundiari eta haren sektore publikoari aplikatzekoa zaion Erakundearen Zuzentasun Sistema.

10/2019, zuzendari nagusi batek fundazio batean patronatuko kide gisa parte hartzeari buruzko kontsulta (KP)

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO PREBENTZIOKO, (...)KO ZUZENDARI NAGUSI (...) JAUNAK EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA, (...) FUNDAZIOAN PATRONATUKO KIDE GISA PARTE HARTZEAREN INGURUAN

I.- KONTSULTA

1.- 2019ko urriaren 12an jasotako posta elektronikoaren bidez, interesdunak adierazi du eszedentzia eskatu zuela (...) Fundazioan duen lanpostuan, egungo karguan aritu ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiko (...)ko zuzendari nagusi gisa. Kontua da, zuzendari nagusi gisa aipatu Fundazioaren patronatuko kide izatea dagokiola. Beraz, interesatuak jakin nahi du

ezen, (...) Fundazioak GFaren % 100eko partaidetza izanik, Patronatuak hartutako erabakietan abstenitu beharko lukeen; eta, bestalde, zuzendari nagusi kargua uztean Fundazioan duen lanpostura itzul daitekeen.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren Sektore Publikoko Erakunde Zuzentasun Sistema onartu zuen. Horren bidez, etika publikoa eta eredugarritasuna ezarri nahi dira nortasun ezaugarri gisa

Sistemak barne hartzen du Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea (KPIJK), eta identifikatzen du zein diren foru aldundiaren sektore publikoko kargu publikoek zein langile baliokideek beren funtzioak edo jarduera publikoak edo, hala badagokio, pribatuak egiten dituzten bitartean zaindu eta sustatu beharreko jokabide eta jardute arauak, baldin eta horiek zerbitzu ematen duten erakundearen irudian eragina izan badezakete. Horren guztiaren xedea da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, betiere erakundearen irudia babestuz.

2.- KPIJKk zortzi balio biltzen ditu: ordezkartza, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna, eta bizikidetzeta eta errespetua. Zortzi printzipio ere biltzen ditu: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitallean oinarritutako gobernua eta herritarren entzute aktiboa eta kontuak ematea

Balio eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horiexek osatzen dute EEB honek baliatu behar duen erreferentziazko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezen interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkionten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sisteman aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean jasotako balio, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzari edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren funtzioak kargu publikoetan eta kargu baliokideetan islatuko dira, besteak beste.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeakoak, 3.b) artikuluan zehazten du ezen EEBari dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Eskatzaileari Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea aplikatzen zaio, zehazki, 1.3 arau orokorraren 1. ataleko b) letran jasotakoa; bertan ezartzen da aplikazio eremua.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Kontsulta honetan bi zalantza planteatzen dira: batetik, ea patronatuko kide gisa hartu beharreko erabakietan parte har dezakeen, fundazioarekin aldez aurretik zegoen lan-harremana dela eta; eta, bestetik, ea kargu publiko gisa dagokion agintaldia amaitzean itzul daitekeen bere jatorrizko lanpostura.

1.- Lehenik eta behin, bestetan ere egiten den bezala, foru administrazioko goi kargudunei aplikatzekoa zaien legedia aztertu behar da.

6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 47. artikuluan ezartzen duenez, zuzendari nagusiak 37. artikuluan foru diputatuentzat ezarritako bateraezintasun erregimenaren mende egongo dira. Bertan dioenaren arabera, 24. artikuluan diputatu nagusiarentzat ezarritako bateraezintasun erregimen bera dagokie horiei; artikulua horrek erreferentzia egiten dio, halaber, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioan diharduten kargu publikodunen bateraezintasunari buruzko legediari.

Ondorioz, diputatu nagusiari ez ezik foru diputatuei eta zuzendari nagusiei ere aplikatu behar zaie 1/2014 Legeak, ekainaren 26koak, kargu publikoen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituenak, aurreikusten duen bateraezintasun erregimena.

Lehendabizi argitu behar dena da ea interesduna aipatutako fundazioaren patronatukoa izan daitekeen eta, beraz, fundazioaren barruan hartzen diren erabakietan parte har dezakeen. Alde horretatik, interesatuari, (...)ko zuzendari nagusi den aldetik, Su Eskola Fundazioaren Patronatuko kide izatea dagokio, eta fundazio hori foru sektore publikoaren parte da (01/2014 Legearen 15.d artikulua); hala ere, ondo adierazten denez, interesatua fundazio horretako langilea da, eta nahitaezko eszedentzian dago, zuzendari nagusi gisa jardun ahal izateko. Egoera horretan, kontuan hartu behar da zer ezartzen duen 10. artikulua, **parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharrari** buruzkoak:

10. artikulua.- Parte ez hartzeko eta inhibitzeko betebeharra

1.- Administrazio-prozedura erkidea arautzen duen arautegian ezarritako parte ez hartzeko kasuez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuko kargu publikodunek **ez dute parte hartuko beren interesak**, ezkontide edo izatezko bikotekidearenak edo laugarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahai-detasuneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatzen dituztenak **agertzen edo bultzatzen diren jarduera, erabaki edo ekimenetan.**

(...)

Zentzu berean ezartzen ditu Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak zintzotasuna eta eskuzabaltasuna bezalako balioekin lotutako jokabide arauak:

3.4 Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna

(...)

d) Interes gatazka sortzen da foru kargu publikoak **hartzen dituen erabakietan berezko interes pribatuak baditu**, edota izaera publikokoak, zuzeneko senideenak, izatez-

ko bikotekidearenak edo hirugarrenekin partekatutako interesak, baita pertsona edo kolektibo horiek hartu-emanak izan dituzten enpresa edo entitateen interesak ere.

(...)

Horrelakoetan:

(...)

b) *Interes publikoen eta pribatuen arteko gatazkarik badago, edo gatazka susmorik badago, kargu publikoak dagokion autoritateari edo erakundeari jakinarazi beharko dio lehenbailehen. Halaber, gai horri buruzko kontsulta berme organoari ere helarazi ahal izango dio.*

c) *Edonola ere, aurreko atalean zehaztutako baldintzetako bat ematen bada, **ez du parte hartuko** dagokion erabakia hartzeko prozesuan, ez zuzenean, ez zeharka.*

(...)

Gai honetan, gerta daiteke kasu jakin batzuetan Patronatuan hartzen diren erabakiek zuzenean eragin ahal izatea interesdunaren interes partikularretan, fundazioan eszedentzian dagoen langile gisa, hala nola Fundazioan duen plazari buruzkoetan edo ordainsari-maila igotzekoetan. Beraz, nahiz eta arau orokor gisa ez dagoen eragozpenik interesduna kasuan kasuko fundazioaren patronatuko kide izateko eta patronatuko kide gisa dagozkion erabakietan parte hartzeko, interesdunak ez du parte hartu beharko erabaki horiek bere interes propioei eragin diezaieketen kasu jakinetan.

2.- Bestalde, zalantzan jartzen da ea bateraezintasunen bat dagoen kargu publikoa bete- ztearen eta funtzio publikoa amaitutakoan Fundazioko lanpostura itzultzearen artean.

1/2014 Legeak, III. kapituluan, kargu publikodunen bateraezintasunen araubidea ezartzen du: bai bateragarritasunak eta bateraezintasunak kargu publikoan aritzean, bai kargua utzi ondorengo debekuak ere.

Horri dagokionez, 18. artikuluan dio:

18. artikulua.- Kargu publikoa utzi ondoko debekuak.

1.- *Kargu publikoak betetzen dituztenek, kargua uzten duten egunetik hurrengo bi urteetan, kargua dela-eta zuzeneko harremana izan duten enpresa, sozietate edo **beste edozein entitate pribaturi** ezingo diote inolako zerbitzurik eman, eta ezingo dute, haiekin, inolako lan-harremanik edo merkataritza-harremanik izan, kasuan kasuko araudiaren arabera egoki dakizkiekeen kalte-ordainei edo prestazioei kalte egin gabe.*

Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeari dagokionez, 05/2016 Ebazpenean jada aipatu genuen bezala, 7.5 atalak ezartzen du, lehendabizi, Kodean zehaztutako betebeharrak eta konpromisoak aplikagarriak izango direla foru karguaren izendapena egiten denetik hori kargutik kentzen den momentura arte, eta, bigarrenik, betebeharrak eta konpromiso horiek, "ex ante" egoerengatik sortzen diren interes gatazketan izan ezik, ez direla aplikagarriak izango kargu publikoak Foru Aldundiarekin alde aurretik edukitako hartu-emanetan, ezta foru administrazioaren zerbitzura lan egin ondoren, eta erakunde horrekin edukitako ha-

rreman organikoa amaitu ondoren sortzen diren "ex post" jardueretan ere. Izan ere, kasu horietan interes gatazken esparruan indarrean dagoen foru legeria edo araudia aplikatuko da (1/2014 Legeko 18. artikulua).

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehenengo. – Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean zintzotasunaren eta eskuzabal-tasunaren balioei buruz jasota dauden artikuluetan ezarritakoaren arabera, gomendatzen dugu interesdunak ez parte hartzea Fundazioan duen lanpostuaren berezko interesei eragin diezaieketen erabakietan.

Bigarren. - (...) fundazio publiko bat da eta, hortaz, indarrean dagoen legerian adierazita-koaren arabera, ez dago kargu publikoa utzi ondorengo debekuen artean; beraz, ez dago eragozpenik zuzendari nagusi kargua utzi ondoren bertan zuen lanpostua berreskuratzeko.

11/2019, goi eta erdi mailako teknikari batzuek Diputatuen Kontseiluaren erabaki baten onarpenari buruzko egindako salaketari buruzko ebazpena (KP)

EBAZPENA, (...) DEPARTAMENTUKO GOI ETA ERDI MAILAKO TEKNIKARI BATZUEK DIPUTATUEN KONTSEILUAREN ERABAKI BATEN ONARPENARI BURUZ EGINDAKO SALAKETARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2019ko irailaren 23an, Erakundearen Etika Batzordea (EEB) atxikita dagoen Departamentuko Erregistroan, (...) Departamentuko langile batzuek egindako salaketa sartu zen. Horretan salatzen denez, 1992tik, (...) espezialitate orokor bat sortzeari buruz Diputatuen Kontseiluak hartutako erabakiak errekurritzen ari dira Auzitegietan; Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) partzialki zuzendu du egitate hori, eta zenbait instantziatako Auzitegien epai batzuk baliogabetu dute (azken epaia (...)-koa da, EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren (...) Epaia).

2.- Interesdunek Diputatuen Kontseiluko kide diren foru diputatuen portaera salatu dute, Diputatuen Kontseiluaren Erabaki bat onartzeagatik ((...)-ko GAO), zeinaren bidez kategoria horretako eskaintza publikoen deialdia egiten den; hain zuzen ere, interesdunek uste dute kideek jokabide ez etikoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kideen eta Gipuzkoako Foru Administrazioiko goi kargudun publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodean ezarritako jardunbide egokien aurka egin dutela.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako Erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta horren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen, zeinaren bidez etika publikoa eta eredugarritasuna identitate zeinu modura finkatu nahi diren.

Sistemak Gipuzkoako Foru Aldundiko kideen eta Gipuzkoako Foru Administrazioiko goi kargudun publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea (JJEK) barneratzen du, eta foru kargu publikoak eta baliokideak dituzten pertsonak beren zeregin eta jarduera publikoak edo, hala badagokio, pribatuak gauzatzean bete eta bultzatu beharko dituzten portaera eta jardunbide arauak identifikatzen ditu, baldin eta portaera eta jardunbide horiek beren zerbitzuak emateko esparru den erakundearen irudian eragina izan badezakete. Hori guztia, zuzentasuna eta eredugarritasuna bultzatzeko asmoz, erakundearen irudia babestuz.

2.- JJEK kodea zortzi baliotan egituratzen da –ordezkaritza, zuzentasuna, eredugarritasuna, leialtasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, efizientzia eta bizikidetzeta eta errespetua–, eta zortzi printzipio ditu ardatz –lidergo partekatua eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen irekiera, euskara kudeatu eta berritu, bultzatu eta erabiltzeko eredu berriak, kohesio ekonomiko eta soziala eta lurralde arteko oreka, harreman gobernua eta herritarrenganako entzute aktiboa eta kontuak ematea–.

Balio eta printzipioen esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta jardunbideen katalogo zabala barneratzen du, eta katalogo hori da Erakundearen Etika Batzordeak erabili behar duen erreferentziarako parametroa Kodera berariaz atxikitako kargudun publikoek edo bere aurreikuspenak egiaz bete daitezzen egiazko interesa duten hirugarren pertsonak hartara eramandako kontsulta, zalantza eta dilema etikoei erantzuna emateko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemak Erakundearen Etika Batzorde (EEB) baten sorrera aurreikusten du aparteko organo modura, Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea arautzen duten balio, printzipio eta jardunbide arauak betetzen direla bultzatu, sustatu, begiratu eta bermatzeko zereginekin, nahiz erakundearen irudia kalte dezakeen edozein ez betetze edo jardunbide oker prebenitzekoarekin.

Organo berme emailearen funtzioak, besteak beste, kargu publiko eta baliokideen gainean proiektatuko dira.

4.- 3/2016 Foru Dekretuan, martxoaren 1ekoan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Sektore Publikoaren Erakundearen Etika Batzorde eratzekoan (urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuak aldatua), 3.b) artikuluan xedatzen denez, EEB batzordeei dagokie kargudun publikoek planteatutako kontsulta, zalantza eta dilema etikoak ebaztea, ebazpen, txosten edo ohar bidez.

5.- Salatutako pertsonen JJEK kodea aplikatzen zaie, kode horren aplikazio eremua ezartzen duen 1.3 arau orokorreko 1. zenbakiko a) hizkiaren arabera.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

1.- Esku artean dugun gaian, (...) Departamentuko langile batzuek diotenez, 1992an (...) espezialitate orokor bat sortzeari errekurtsioa jarri ziotenetik, Diputatuen Kontseiluak zenbait Erabaki hartu ditu, zeinak Auzitegiek ondoz ondo errekurritu eta ebatzi dituzten, eta azken Epaia EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren (...) Epaia izan da, zeinak (...) espezialitatea deuseztatu zuen. Aipatzen denez, espezialitate hori jasotzen duen Erabaki bat onartu da, berriz ere (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, (...))koa. Eskatzaileek Diputatuen Kontseiluko kideen jokabidea salatzen dute, azken Erabaki hori hartzeagatik, uste dutelako Erabaki hori hartzea jokabide ez etikoa eta JJEK kodean jasotako jardunbide egokien kontrakoa dela, Auzitegiek adierazitakoaren aurka doalako.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Justizia Auzitegiek emandako ebazpenei jarraikiz, lanpostuei eta espezialitatei buruz hartutako Erabakiak partzialki zuzendu ditu, Auzitegiek ezarritakoa betetze aldera eta, aldi berean, enplegu planak ezartzeko betebeharra bete eta Foru Aldundiaren plantillaren tamaina egokitzeko, funtzio publikoaren arrazionaltasuna eta eraginkortasuna bermatzeko xedez.

2.- Zalantzarik gabe, esku artean duguna gai zaila da eta, gainera, erabat judizializatuta dago. Beste batzuetan esan den moduan, sarritan zaila da Zuzenbidearen eta Etikaren arteko muga marraztea baina beti ez daude hertsiki lotuta. Horrekin esan nahi dugu zuzentasunaren eta etikaren ikuspegitik oso zuzenak ez diren zenbait ekintza ez direla beti juridikoki zigortzeko modukoak eta, era berean, legezko estaldura ez duen guztia ez dela beti etikoki gaitzesgarria.

Esku artean dugun kasuan, Auzitegiek adierazi dute (...) espezialitatea ezin dela izan (...) Departamentuko lanpostu guztiak barne hartzeko bezain zabala, baina ez dute esan espezialitatea bera zuzenbidearen aurkakoa denik. Izan ere, EEB honek jakin ahal izan duenez, Gipuzkoako Foru Aldundia espezialitate hori zuzenago definitzeko konponbide bat aurkitzeko lanean ari da, gaur egun.

Azkenik, gogora dezagun, lehenago esan izan dugun moduan, ez dela EEB honen eginkizuna aztertzea ea jokabide batzuk ordenamendu juridikoaren arabekoak diren, horretarako beste berezko bide eta organo egokiagoak daudelako; aldiz, Batzorde honen eginkizuna da aztertzea ea jokabide horiek kontraesanean dauden, kasu honetan, JJEK kodean ezarritakoarekin.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Bakarra.- Aurkeztutako salaketa artxibatzea, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren 7.2 artikuluari jarraikiz, ulertzen delako salaketan planteatzen aztergaia ez dela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta horren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sisteman jasotako balio, printzipio eta jokabide arauen xede.

12/2019, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide baten jabetzako enpresa baten balizko kontratazioari buruzko kontsulta (KK)

EBAZPENA, GIPIIZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO BATZARKIDE BATEN JABETZAKO ENPRESA BATEN BALIZKO KONTRATAZIOAREN INGURUAN EGINDAKO KONTSULTA BATENA

I.- KONTSULTA

1.- (...) Zerbitzuak Foru sektore publikoaren Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) 2019ko irailaren 27an bidalitako mezu elektronikoko baten bidez, zalantzan jarri da Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkide baten jabetzako enpresa bat Gipuzkoako Foru Aldundiaren (GFA) (...)kin lotutako hainbat lanetarakoarena kontratatu ahal izatearen egokitasuna.

Mezuan adierazten da egun GFA lanean ari dela (...) batean, eta, horretarako, bilerak egiten ari dela hainbat (...) agentziarekin, (...) aurkezteko eta (...)kin lotutako zerbitzuak hornitzeko aurreikusitako lehiaketa publikoen berri emateko. Biler horien artean, (...) enpresarekin ere bildu dira, eta enpresa horren jabea Batzar Nagusietako batzarkidea da egun.

Zerbitzuak galdetu du Erakunde Zuzentasun Sistemaren ezarritakoarekin bat datorren GFAk balizko kontratua egitea enpresa horrekin.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Diputatuen Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakunde Zuzentasunaren Sistema, etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun zeinu moduan finkatzeko asmoz.

Sistema horren barruan, Diputatuen Kontseiluaren 2017ko irailaren 5eko Erabakiaren bidez onartu zuen *Kontratazio publikoari aplikatu beharreko jokabide kodea eta zuzentasun instituzionalaren esparrua* (KJK), kontratazio publikoko jarduketak gidatu behar dituzten balio etikoak eta jardunbide arauak, eta kudeaketa onaren eta jardun profesionalaren arauak ezartzen dituen, bai kargu publikoentzat eta foru enplegatu publikoentzat beren funtzioak betetzearekin lotutako jarduera profesional guztientzat bai kontratazio prozeduretan parte hartzen duten enpresa eta erakunde lizitatzailerentzat.

2.- KJKak xedatzen du EEBa izango dela, martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuak sortutakoa, berme organo handiena, kodearen aplikazioaren inguruko gaiak ebatziko dituen, eta KJKaren kasuan kontratazioan aditua den pertsona baten aholkua jaso ahal izango duena.

3.- Aipatutako foru dekretuaren arabera, EEBarik dagokio Erakunde Zuzentasunaren Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balioak, printzipioak eta jardunbide arauak ez betetzeaz buruz jasotako kezkak eta salaketak tramitatzea eta ebatzea.

4.- Esku artean dugun gaiari dagokionez, KJKa aplikagarria da, bere aplikazio esparruari buruzko 3. artikuluari jarraituz.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Gai hau GFAREN (...) Zerbitzuko langileek planteatu dute, eta bere jarduerarekin lotutako hainbat lan edo zerbitzu egiteko (...) agentzia baten balizko kontratazioaren ingurukoa da. Aipatutako agentzia egun Batzar Nagusietako batzarkide baten jabetzakoa da. Horrek zailtasunak sortzen ditu kontratazioaren egokitasunaren inguruan.

1.- KJKak bere xedean jasotzen duenez, asmoa da kontratazio publikoko jarduketak gidatu behar dituzten balio etikoak eta jardunbide arauak, eta kudeaketa onaren eta jardun profesionalaren arauak ezartzea, bai kargu publikoentzat eta foru enplegatu publikoentzat beren funtzioak betetzearekin lotutako jarduera profesional guztientzat bai kontratazio prozeduretan parte hartzen duten enpresa eta erakunde lizitatzailerentzat.

Hau da, KJKak bi bide ditu: a) bata barrukoa, kontratu publiko baten edozein fasetan esku hartzen duten foru kargu publikoentzako eta foru sektore publikoko langileentzako jarduketak esparru bat sortzeko; eta b), bestea kanpokoa, lizitazio publikoetan parte hartzen duten enpresen eta entitateen eta KJK urratu dezaketen balizko jardunbideak egoteko aukera mugatzeko.

Hori xedatzen dute 1.3. eta 1.4. artikuluek, KJKaren xedearen ingurukoek:

1.- Helburua

(...)

1.3.- Kontratazioaren alorrean Kodeak lanbide orientaziorako gida izan behar du foru langile publikoentzat Gipuzkoako gizartearen zerbitzuari dagokionez, horien eginkizunak betetzerakoan profesionaltasuna eta inpartzialtasuna sendotzeko premia ezartzen baitu.

1.4.- Orobat, enpresa eta entitate lizitatzailerak eta kontratuaren esleipendunek errespetatu beharreko betebeharrak zehazten ditu, kontratazio prozesuaren zuzentasunaren onerako eta gizartean gardentasunaren kultura sustatzeko, eta horren bidez prebentzio kultura bat (arriku esparruak) garatuko da, kontratazio publikoaren prozesua gardentasun handiagoz hornituko da eta kontratazio publikoan lehia handiagoa sustatuko da.

(...)

Gauza bera aplikazio esparrua definitzen duenean (3. artikulua):

3.- Aplikazio eremua

Kode honek zehaztu egiten du zein diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta kontratazio publikoko prozesuetan parte hartuko duten kargu publikoen eta funtzionarioen eskakizun etikoak eta kudeaketa onekoak, eta era berean horien profesionaltasuna (prestatuntza) sendotzeko eta eginkizunetan inpartzialtasuna bermatzeko beharra ezartzen du.

Enpresa eta entitate lizitatzailerak dagokienez, jarduera esparrua ezarri nahi du kontratazio prozeduraren zuzentasunaren berme gisa, eta nahitaez betebeharrekoa izango da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko lizitazioetan lehiatuko direnentzat eta horien esleipendunentzat.

(...)

Beraz, aplikazio eremuaren ikuspegitik, gaia ondo planteatuta dago, GFaren zerbitzura dauden langileek galdetzen baitute balizko enpresa adjudikaziodun baten kontratazioaren inguruan.

Gogorarazi behar da Batzar Nagusietako batzarkideak, foru sektore publikoko langileak ez direnez, EZSaren aplikazio eremutik kanpo gelditzen direla eta, hortaz, ez direla aplikagarriak KJKaren eta EZSaren artikuluetan ezarritako jardunbide arauak. Horrenbestez, gai honetan badirudi ez duela garrantzirik enpresa batzarkide baten jabetzakoa izateak. Ezarritako betebeharren kanpoko dimentsioari erreparatu behar diogu, zalantza foru administrazioarekin kontratua egin nahi duten enpresen inguruan sortu baita.

Zentzu horretan, garrantzitsua da adieraztea, gaia planteatuta dagoen moduaren arabera, kontuan hartuta (...), hainbat (...) agentziarekin bilerak egin direla, eta gai honetako enpresarekin izandakoa ez da kontaktu bakarra. Zentzu horretan, garrantzitsuena da balioa aitortzea KJKaren **Helburuan** bertan ezarritakoari. Ikusi dugunez, bertan adierazten da zein betebeharrak errespetatu behar diren kontratazio prozesuetako zuzentasuna bermatzeko, lehia handiagoa sustatzeko azken helburua betetze aldera.

(...)

1.4.- Orobat, enpresa eta entitate lizitatuak eta kontratuaren esleipendunek errespetatu beharreko betebeharrak zehazten ditu, **kontratazio prozesuaren zuzentasunaren onerako eta gizartearen gardentasunaren kultura sustatzeko**, eta horren bidez prebentzio kultura bat (arriku esparruak) garatuko da, kontratazio publikoaren prozesua gardentasun handiagoz hornituko da eta **kontratazio publikoan lehia handiagoa sustatuko da**.

(...)

Ondorioz, garrantzitsuena da kontratazio prozesu osoan bermatzea 2.d) artikuluan xedatutako **Gardentasun** printzipioa betetzen dela:

(...)

d) Gardentasuna. Gardentasuna kontratazio publikoaren alorrean argitasuna edo ambiguitasunik eza izan daiteke. **Publizitate egokia** bermatu behar da, litezkeen lizitatuak guztien onetan, halako eran non zerbitzuen merkatua konkurrentziara zabaltea eta esleipen prozeduren inpartzialtasuna kontrolatzea ahalbidetuko den. Berezik, **faboritismoa**, inpartzialtasunik eza eta bidegabekeria **arrikuak saihestu behar dira**; eta aitzitik, lizitazio prozeduraren baldintza eta modalitateak era argi, zehatz eta ezin nahasizkoan azalduak izango dira lizitazio iragarkian edo baldintza agirian. Helburua hau da: alde batetik, behar bezala informaturik dauden eta nahiko arretatsua diren lizitatuak guztiek zertzelada horien norainokoa zehazki ulertzea eta modu berean interpretatzea eta, bestetik, erakunde esleituak benetan egiazatu ahal izatea lizitatuak aurkezturiko eskaintzek kontratuari aplikatu beharreko irizpideen arabekoak diren.

(...)

Horri dagokionez, gogorarazi behar da EEBak 9/2018 Ebazpenean gomendatu zuela beharrezko zenbait neurri hartzea kontratazio prozesuetan gardentasun handiagoa bermatzeko, bereziki merkatuko lehia askea bermatzera bideratutakoak. Kontuan hartu behar dira esku artean dugun gaian ere.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Lehena.- Erakunde Zuzentasunaren Sistemari jarraituz, kontratu bat batzarkide baten jabetzako enpresa bati adjudikatzeak ez du *per se* bertan xedatutakoa urratzen.

Bigarrena.- Kontratazio prozesuetan gardentasun handiagoa bermatzeko, honako neurri hauek hartzea gomendatzen dugu:

- 1) Eragileekin trukaturako informazio egokia jasotzea kontratazioen inguruan, eta proposaturako guztiaren txostena egitea.
- 2) Txosten hori kontratazio plataforman argitaratzea eta lizitazioa egitean haren erreferentzia egitea, interesdunak sartu ahal izan daitezen.
- 3) Edozein lizitaziotan honako hauek kontu handiz berrikustea, are gehiago ahal bada,:
 - Kontratuaren xedean ez dagoela preskripziorik edo zehaztapenik balizko beste eragile ekonomiko batzuekin egindako aurreko kontsultetan parte hartu dutenei onura ekarriko dietenik.
 - Kaudimen eta gaitasun betekizunak egiaztatzea: bereziki kontratuaren xedearekin duten lotura eta proportzionaltasuna.
 - Balio judizioaren bidez balioetsi beharreko adjudikazio irizpideen anbiguotasun maila zaintzea eta egiaztatzea zein adjudikazio irizpide automatiko balioesten diren.

13/2019, Aldundiko teknikari batek dirulaguntza baten izapidetze prozeduran parte hartzeari buruzko kontsulta (DL)

EBAZPENA, (...)KO DEPARTAMENTUKO (...)KO ZERBITZUKO TEKNIKARI (...)K DIRULAGUNTZA BATEN IZAPIDETZE PROZEDURAN PARTE HARTZEARI DAGOKIONEZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I.- KONTSULTA

1.- 2019ko azaroaren 27an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordera (EEB) bidalitako mezu elektronikoaren bidez, interesdunak adierazi zuen, bere eginkizunak betetz, hainbat erakunderi zuzendutako dirulaguntzen programa bati buruzko txosten ekonomiko bat egitea dagokiola, eta dirulaguntza horren deialdian onartu diren erakundeetako bateko bazkide dela.

2.- Interesdunak uste du gerta daitekeela interes publiko eta pribatuen arteko gatazka, Foru Enplegu Publikoaren Kodean jasota dagoena, eta horrek zalantzan jar lezakeela prozeduran parte hartzea; horregatik, gai horri dagokion EEBren iritzia jakin nahi du.

II.- ARAU APLIKAGARRIAK

1.- Foru Gobernu Kontseiluak 2016ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onetsi zen (ESZ), eta horrekin etika publikoa eta eredugarritasuna sendotu nahi dira, erakundearen nortasun-ezaugarri gisa.

Sistema horren barruan, Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Foru Enplegu publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren Kodea (EPJK) onetsi zuen 2017ko azaroaren 7an, eta bertan ezarri zituen Foru Aldundiko enplegatu publikoek, beren funtzioak gauzatzeari begira, egiten dituzten jarduera profesional guztietan kontuan hartu beharrekoak diren balio etikoak eta jokabide arauak, kudeaketa onaren printzipioak eta jarduteko arauak.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren 2018ko urriaren 2ko Erabakiaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren laguntzei eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparrua (DLJK) onetsi zen. Kode horretan, prozedura horietan parte hartzen duten foru sektore publikoko langileek nahiz enpresa, organismo edo erakunde onuradunek jarraitu beharreko jokabide eta jardueren inguruko balio, printzipio eta arauak ezartzen dira.

2.- Bai EPJKak bai DLJKak ezartzen dute martxoaren 1eko 3/2016 Foru Dekretuaren bidez sortutako EEB izango dela berme goreneko organoa eta haien aplikazioari buruzko gaien berri izango duela.

EPJKkin zerikusia duten gaiak ebazteko, langileen ordezkariak bateratuak izendatutako pertsona batek parte hartuko duela ezartzen da.

3.- Foru dekretu horren arabera, EEBri dagokio jasotzen diren kexa eta salaketa guztiak tramitatzea eta ebaztea, Erakundearen Zuzentasun Sistema garatzeko tresnetan ezarritako balore, printzipio eta jokabide arauak betetzeari dagokionez.

4.- Eskatzaileari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enplegatu publikoa izanik, jarraian adierazten dena aplikatzen zaio.

III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALIOESPENA

Gai honetan, interesdunak uste du interes publiko eta pribatuen arteko gatazka egoeran dagoela, erakunde bateko bazkidea delako, eta erakunde horri buruzko balorazioa egin behar duelako, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari gisa duen eginkizuna betez.

1.- Lehenik eta behin, gogorarazi behar dugu EPJKak ezartzen dituen **helburuen** artean dagoela *inpartzialtasunaren, profesionaltasunaren, osotasunaren eta herritarrei enplegu publikoaren zerbitzua ematearen irudia indartzea*. Ideia horren zehaztapen gisa, inpartzialtasun eta objektibotasun balioak ezartzen dira. Balio horien bidez, enplegatu publikoen jarduera objektiboa bermatu nahi da, herritarrengan garrantzia duten erabakiak hartzerakoan, alde zuzenetik pentsatutako eragin edo ideietatik urrun, eta haien jarduna ahalik eta modu objektibo, zorrotz eta inpartzialenean gauzatu behar da.

Zentzu horretan, **inpartzialtasun eta objektibotasun** balio etiko horiei lotutako jokabide arau batzuk garatzen dira (4. apartatua).

(...)

b) (...)euren funtzioak burutzean horien bidez erakunde publiko edo pribatuei edo pertsona fisiko zehatzei mesede-tratu edo onura zuzena edo ez-zuzena sor dezakeen jarduera batean arrazoitu gabeko edo objektibatu gabeko moduan eragina duten edo susmoa edo irudia eman dezaketen praktika eta jardun guztiak ekidingo dituzte.

(...)

d) Jarduera objektibo horrek, bereziki, sarrera, sustapen eta lanpostuen hornikuntza, kontratazio publikoa, dirulaguntzen izapidetzea edo publizitate eta konkurrentzia askeko printzipioak gidatzen duen edozein legezko exijentzia betetzea estali beharko du, baita euren funtzioak betetzean inpartzialtasuna babestea ere.”

Bestalde, EPJKak hau adierazten du «**Zintzotasuna eta interesik eza**» izeneko 2.3 artikuluan: «Foru langile publikoaren jardunak interes publikoa betetzera eta gipuzkoar herritar guztien interesetara bideratuko du modu zorrotz eta garden baten bidez. Interes publiko eta pribatuen arteko gatazka edo gatazka zantzuen kasuan, foru langile publikoak Erakundearen Etika Batzordeari berehala jakinarazi beharko dio».

Gai honetan, laguntza jasotzeko hautagai diren erakundeetako bateko bazkide izateak interes-gatazkako egoeran egotearen itxura sor dezake, noski, eta EPJKak argi azaltzen du zein den prozedura kasu horietan:

3. artikulua. Zintzotasuna eta eskuzabaltasuna

(...)

c) Edozelan ere, aurreko letran adierazitako egoeraren bat emango balitz, bereziki interes publiko eta pribatuen arteko edozein gatazka edo gatazka zantzu, prozedura horretan, **zuzenean edo zeharka**, parte hartzeari **uko egin beharko dio**, ezar daitekeen araudiaren arabera.

(...)

2.- Ez da ahaztu behar kontu eta arreta berezia jarri behar dela Administrazioaren zenbait prozeduraren objektibotasunean eta inpartzialtasunean, bereziki oihartzun publiko handiena izan dezaketen eta arreta bereziz zaindu behar direnak, hala nola kontratazioa eta dirulaguntzak (aztertzen ari garen gaia). Hain zuzen ere, arrazoi horregatik onartu dira jokabide kode espezifikoak, eremu horietarako jokabide arau zehatzak adierazten dituztenak.

DLJKren zioen azalpenean adierazten den bezala, argi dago administrazio publikoen sustapen-jarduera gastu publikoaren modalitate garrantzitsu bat dela, eta, beraz, dirulaguntzen eta laguntzen esparru horretara bideratzen diren baliabide publikoen garrantzia eta horiek kontrolatzeko beharra ez dira gai hutsalak.

Ildo horretan, DLJKk, barne dimentsioan, foru sektore publikoko kargudunen eta langileen balioak, printzipioak eta jarduteko arauak ezartzen ditu laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko prozeduretan. Besteak beste, honako hau adierazten da:

4. artikulua.

(...)

8) Halaber, foru sektore publikoko kargudunek eta langileek **ez dute parte hartuko dirulaguntzak edo laguntzak kudeatzeko prozeduretan**, bereziki balorazio edo proposamen batzorde teknikoetan, eta ez dute horretarako ebazpenik hartuko, baldin eta prozesu horietan kide gisa parte hartzen duten erakundeak edo elkarteak badaude, edo odolkidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailara arteko seni-deak badituzte.

9) Foru sektore publikoko kargudunek eta langileek arreta bereziz **errespetatu beharko dituzte prozedura horietan interes gatazkei aplikatu beharreko jokabide arauak**, bai zuzenekoak, bai inplizituak edo isilpekoak, dagozkien jokabide kodeetan jasotakoaren arabera, eta Etika Instituzionaleko Batzordeari jakinarazi beharko diote gai horiei buruz sortzen den edozein gorabehera, dilema, zalantza edo gai.

(...)

Agerikoa da, beraz, bai foru enplegu publikoari buruzko kodeak, bai laguntza eta dirulaguntzei buruzkoak, beren jokabide arauen bidez garatzen dutela Foru Aldundiaren Zuzentasun Instituzionaleko Sistema osoaren helburua: herritarrek foru erakundeetan duten konfiantza sendotzea, kontuan hartuta bertako langileen zerbitzu publikoaren bokazioa, eta funtzio publikoak betetzean ez dutela interes pertsonalik. Hori dela eta, funtzio publikoaren berezko eskumenak erabiltzean objektibotasunik ez dagoela ikusten bada, hura babesteko neurri egokiak hartu behar dira.

Hori guztia dela eta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez onartu du honako ebazpen hau:

EBAZPENA

Bakarra.- Gipuzkoako Foru Enplegu Publikoaren Etikaren eta Kudeaketa Onaren 3. eta 4. artikuluen, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere sektore publikoaren laguntza eta dirulaguntzei aplikatu beharreko Jokabide Kodea eta Zuzentasun Instituzionaleko Esparruaren 4. artikuluaaren arabera, interesdunari gomendatzen diogu parte ez hartzea bazkide den erakundea alderdi interesduna den dirulaguntzak emateko prozesuan.

5. Aplikazio gida

Ohikoa denez, jasotako gaiak, integritatearen arloan izandako aurrerapenak eta hobekuntzak eta hainbat erakunderen jardunbide egokiak aztertuta, uste dugu egokia dela zenbait aldaketa proposatzea IISean, eskakizun berrietara eta une honetako gizarte-errealitatera egokitzeko. Gainera, 2019an sistemak izan duen kanpo-ebaluazioak agerian utzi du, eredu aurreratua eta aitzindaria izan arren, hobetzeko aukerak daudela oraindik.

Horren guztiaren inguruko hausnarketa sakon baten ondorioz, hobetzeko proposamen batzuk aipatuko ditugu jarraian.

a) Hobekuntzak salaketen konfidentzialtasunean

2019an, zenbait ekintza proposatu genituen prozeduren izapidetzean konfidentzialtasuna hobetzeko, salaketak modu anonimoz izapidetu nahi zenerako. Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela beste urrats bat egitea eta mekanismo bat ezartzea, IISean ezarritakoa urra dezakeen jardueraren bat salatzen duten pertsonen anonimotasuna bermatzeko, are gehiago kontuan hartuta egungo testuinguru teknologikoak hainbat tresna eta aplikazioen bidez egiteko aukera ematen duela.

Horregatik gomendatzen dugu beste salaketa-bide bat ezartzea zuzentasuna@gipuzkoa.eus helbideaz gain, mezu elektronikoko bat bidaltzeko ez baitu bermatzen salatzailearen konfidentzialtasuna, ezta benetan eraginkorra den babesa ere, eta beharrezkoa da ahalik eta segurtasun mailarik handieneko sistema bat, salatzailearen anonimotasuna eta datu konfidentzialak babestuko dituena.

b) Opari ofizialen erregistro bat sortzea

2019an zenbait urrats eman ziren, orobat, opariak jasotzeko dagokionez, opariak ez onartzeko gutun eredu bat onartuta.

Gogora dezagun jokabide kodeek dagoeneko aurreikusten dutela beren jokabide arauetan edozein opari mota baztertzeko gonbita, eta Etika Instituzionaleko Batzordearen esku uzten dutela opari horiek onar daitezkeen kasuak kasuistikoki ezartzea.

Hala ere, beste opari mota batzuk ere badaude, protokolozkoak edo kortesiazkoak, eta ez du zentzurik horiek baztertzeko, baina inbentario moduko bat eraman beharko litzateke. Inbentario horretan jaso beharko litzateke foru administrazioaren ondasunen parte izango direla, opari ofizialak direlako, edo Etika Batzordeak onargarritzat jo dituela, gizarte erabileratzat edo kortesiatzat hartzen dituelako.

Horregatik, oparien eta dohaintzen erregistro bat sortzea gomendatzen dugu, kontrol mekanismo gisa.

c) Kontratazio-prozesuetan parte hartzen duten pertsonen interes-gatazkarik ez dutela egiaztatzea

Kontratazioaren esparrua da, zalantzarik gabe, ikuspuntu etikotik nahi ez diren edo desbideratu diren praktiken aurrean ahulenetako bat, eta hortik dator gai horretan berriazko

Jokabide Kode²¹ bat onartzea. Bertan, besteak beste, zenbait neurri ezartzen dira, kontratazio prozedurak ahalik eta gardenenak eta bermatzaileenak izan daitezen.

Gainera, IISak, bere Kode ezberdinetan, Ohorezko eta Desinteresezko balioekin lotutako ereduzko arauak garatzen ditu, funtsean, interes publiko eta pribatuen artean gatazkak edo gatazka-itxurak sor daitezkeen egoerak prebenitzen saiatzen direnak.

Hala ere, kontrola egitea eta egoera guztietan interes gatazkarik ez dagoela formalki egiaztatzea lan konplexua da, ia ezinezkoa eskuz egitea, eta, beraz, beharrezko teknologia erabili behar da beharrezko kontrol hori automatizatu ahal izateko.

Bien bitartean, interes pertsonalik ez dagoela bermatzeko neurriak har daitezke, adierazpen bidez bada ere; beraz, prozedura edo protokolo espezifikoko bat ezartzea gomendatzen dugu, kontratazio mahaietako eta balorazio batzordeetako kideen artean interes gatazkarik ez dagoela erregistratzeko. Hori dela eta, adierazpen eredu hau proposatzen dugu:

²¹ https://www.gipuzkoa.eus/documents/20933/923643/Kontratazio_kodea-es.pdf/e014801b-3e70-fd79-8ac2-d63ea19aa374

INTERES GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA

Donostian, 202_ko _____ren __an

Esleitzen den kontratuaren izena:

Kontratazio espediente zenbakia:

Nik, (izen-abizenak), (departamentuaren izena)ko kide izanik, goian aipatutako kontratu publikoa baloratzeko kontratazio-mahaiko/aditu-batzordeko kide izendatu nautelarik, adierazten dut ezagutzen dudala Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren kontratazio publikoari aplikatu dakizkiokeen ereduak kodearen eta integritate instituzionalaren esparruaren 5.1 artikulua, honako hau dioena:

“5.1.- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearekin bat etorritik, interes pertsonalen bat duten Foru Aldundiko langileek eta foru kargu publikoek ezin izango dute parte hartu kontratazio prozesu batean kontratuaren diseinuan, ez kontratazio mahaietan, ez eta edozein motatako balorazioak egin ere”.

Eta adierazten dut, dokumentu honen bidez eta nire erantzukizunpean, ez dudala interes pertsonalen gatazkarik lizitazio publiko honetan eskaintza bat aurkeztu duten zerbitzu eta/edo operadoreei dagokienez, ez gizabanako gisa, ez partzuergo bateko kide gisa, ez proposatutako azpikontratistei dagokienez.

(sinadura)

(Izen eta abizena)

(Kargua/lanpostua)

d) Jarduera-memoriak Gobernu Kontseiluari helaraztea

Lehenago ere askotan esan den bezala, prestakuntza eta sentsibilizazioa, komunikazioarekin batera, tresna garrantzitsuak dira Zuzentasun Sistema ezagutarazteko, eta balioak, printzipioak eta ereduzko arauak aplikagarri zaizkien pertsona guztiek eta gizarte osoak bereak dituztela senti dezaten lortzeko.

Sistemaren oinarriak onartu zirenetik urtez urte ikusten joan garen bezala, hainbat ekitaldi eta jardunaldi antolatzen dira eta barneratze hori sustatzeko baliabideak sortzen dira. Azkenean, kontua da barneko zein alderdi interesatuei zuzendutako komunikazio metodo desberdinak eta askotarikoak eskuratzen saiatzea.

Horren adibide da jarduera memoria hau; izan ere, Etika Instituzionalerako Batzordearen jarduera jasotzeaz gain, Sistemaren inguruan egindako jardueren berri eman nahi du, eta bertan ezarritakoa zabaltzen jarraitu. Memoria hori Foru Aldundiko langileak eta kanpoko eragileak gonbidatu ohi diren jardunaldi batean aurkeztu ohi da, baina zaila da, ezinezkoa ez esatearren, informazioa interesa duten pertsona guztiengana iristen dela ziurtatzea. Horregatik, oso egokia da hedapen horretan laguntzeko egiten den edozein jarduketa edo hartzen den edozein erabaki.

Horregatik guztiagatik, gomendatzen dugu etorkizunean urteko memoriak, 3/2018 Foru Dekretuaren²² 3.d) eta e) artikuluetan ezarritakotik eratorritakoak, Foru Gobernuaren Kontseiluari aurkeztea, Foru Administrazioako organo gorena izan dadin, bera baita gai garrantzitsuenen arduraduna, eta berak balia dezan sistemaren garapenaren egokitasuna, egokitasuna eta eraginkortasuna, uste baitugu horrela, erakundearentzat duen garrantzia aitortu ez ezik, kanal gehigarri eta eraginkorra izan daitekeela.

e) Etika Instituzionaleko Batzordearen funtzionamendu-araudia

IISak Batzordeari ematen dizkion funtzioak eta erantzukizunak berrikusi behar dira; izan ere, zenbait inkongruentzia daude ematen dizkionen eta errealitatean egiten dituenen artean, batez ere jarduteko gaitasunaren ondorioz.

Horregatik, gomendatzen dugu erregelamendu bat egitea, funtzionamendua deskribatzeko eta jarduera arautzeko.

f) Jokabide Kodeak berrikustea

Gomendio horiek guztiak eta aurreko memorietan ezarritako batzuk direla eta, beharrezkoa da IISa osatzen duten ereduzko kodeetan ezarritako literala astiro irakurtzea, beharbada modu ez oso argian edo anbiguoan idatzita dauden kontzeptu batzuk mugatzeko, antzemandako hobekuntza aukerak txertatzeko eta bertan jasotakoa errealitatera egokitzeko.

Beraz, Integritate Instituzionaleko Sistema eta osatzen duten Ereduzko Kodeak berrikustea gomendatzen dugu.

²² 3/2013 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Foru Sektore Publikoaren Etika Instituzionalerako Batzordea sortzen duena, urtarrilaren 16ko 3/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatua; 3.d) eta e) artikulua: "(...) d) Batzordearen jarduerari buruzko urteko txostena egitea; eta, beharrezkoa bada, Jokabideen eta Jardumbide Egokien Kodeko edukiak aldatzeko edo egokitzat jotzen diren neurriak hartzeko proposamenak egitea. e) Jokabideen eta Jardumbide Egokien Kodearen Aplikazio Gida egitea eta onartzeko proposatzea. Gida horretan, urtero, jokabide arauak zehaztuko dira, Batzordeak urtean zehar jasotako kontsultak, egindako ebazpenak eta behatutako ebidentzia empirikoak oinarritzat hartuta (...).

ERABAKIAK

Salaketa bide bat ezartzea gomendatzen dugu, salatzailearen konfidentzialtasuna eta babes benetan eraginkorra bermatzeko.

Foru kargu publikoek eta foru sektore publikoko langileek jasotako oparien eta dohaintzen erregistroa sortzea gomendatzen dugu.

Kontratazio prozesuetan parte hartzen duten pertsonentzako interes-gatazkarik ezaren deklarazioa onartzea.

Erakundearen Etika Batzordearen urteko jarduera-memoriak Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea gomendatzen dugu.

Etika Instituzionaleko Batzordearen funtzionamendu erregelamendua egitea gomendatzen dugu.

Erakundearen Zuzentasun Sistema eta Jokabide Kodeak berrikustea gomendatzen dugu.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa